

*Araba Erdialdeko
eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena*
Revisión del Plan Territorial Parcial del área funcional de
Álava Central

INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOA

Behin-behineko onarpena / Aprobación provisional
2024ko uztaila / julio 2024

AURKIBIDEA

1. SARRERA 8

2. INGURUMEN-EBALUAZIOAREN PROZEDURA 9

 a. Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera 11

 b. Aurretiazko kontsultak eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea 12

 c. Ingurumen-Azterketa Estrategikoa idaztea 12

 d. Planaren hasierako bertsioa eta jendaurreko informazioa eta eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egitea 13

 e. Planaren azken proposamena eta espedientearen azterketa teknikoak 13

 f. Ingurumen-adierazpen estrategikoa 13

3. PLANAREN IRISMENA, EDUKIA ETA GARAPENA 14

 3.1. Planaren aurrekariak 14

 3.2. Eremua 14

 3.3. Helburuak 14

 3.4. Planteatu diren estrategiak 15

 3.4.1. Urbanizatu ezin diren lurzoruen antolamenduaren birformulazioa 15

 3.4.2. Landa-habitataren eta tokiko nekazaritzako elikadura-sistemen sustapena. 26

 3.4.3. Eremu Funtzionala osatzen duten hiri-habitata 27

 3.4.4. Paisaia, kultura- eta natura-ondarea eta baliabide turistikoak: 43

 3.4.5. Baliabideen kudeaketa jasangarria: 3E2030 43

 3.4.6. Mugikortasun jasangarria sustatu eta garatzea: LAGen proposamenak txertatzea. 45

 3.4.7. Klima-aldaketa egokitzea eta arintzea 46

 3.4.8. Lurraldearen gobernantza integratzaileagoa: hedapena eta parte-hartzea 47

4. AUKEREN AZTERKETA 50

 4.1. 0 aukera edo egungo aukera 51

 4.2. 1. aukera 53

 4.3. 2. aukera 54

 4.4. 3. aukera edo hautatutako aukera 54

 4.5. 4. aukera 54

 4.6. 5. aukera 54

 4.7. 6. aukera 55

 4.8. Proposatutako aukeren sintesia 55

5. BESTE PLANEKIN DUEN ERLAZIOA 56

6. INGURUMENAREN EZAUGARRIAK 67

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

6.1.	Ingurumenaren egoeraren deskribapena. Lurralde-ereduaren deskribapena	67
6.1.1.	Ingurune fisikoa.....	67
6.1.2.	Babestutako naturguneak	73
6.1.3.	Arriskuak eta ingurumen arazoak	77
6.1.4.	Klima-aldaketa.....	81
6.1.5.	Paisaia.....	86
6.1.6.	Kultura ondarea.....	88
6.1.7.	Beste ingurumen baldintzatzaile batzuk	89
7.	PROPOSATUTAKO PLANAREN INGURUMEN-ERAGINAK	94
7.1.	Aldez aurreko kontsiderazioak.....	94
7.2.	Lurralde Plan Partzialaren helburuen ingurumen-eraginak.....	96
7.3.	Proposamenen ingurumen-eraginak	99
7.3.1.	Ingurune fisikoaren gaineko balizko eraginak.....	99
7.3.2.	Azpiegitura berdea	99
7.3.3.	Hiri-hazkundeko perimetroetan eman daitezkeen balizko ingurumen-eraginak 113	
7.3.3.1.	Fauna eta floraren gaineko eraginak.....	117
7.3.3.2.	Paisaian duen eragina	118
7.3.3.3.	Ondare kulturalaren gaineko eraginak.....	118
7.3.3.4.	Arriskuen analisisa	119
7.3.4.	Energia berriztagarrien instalazioek ingurumenean izan ditzaketen ondorioak 129	
7.3.5.	Eremu Funtzionaleko hiri-sisteman eman daitezkeen balizko ingurumen- eraginak 129	
7.3.6.	Beste azpiegitura eta ekipamenduak	130
7.4.	Klima-aldaketaren kontsiderazioa.....	131
7.5.	Natura 2000 Sarearen gaineko eraginaren balorazioa.....	132
8.	PREBENTZIO-, ZUZENKETA- ETA KONPENTSAZIO-NEURRIAK.....	136
8.1.	Lurzoruaren okupazioari buruzko neurriak.....	136
8.2.	Azpiegitura berdearen sarearen funtzionamendu egokiari eta faunaren gaineko eraginak arintzeari buruzko neurriak	137
8.3.	Paisaia babesteko neurriak	138
8.4.	Energia berriztagarriko proiektuei buruzko neurriak.....	138
8.5.	Airearen kalitateari eta zaratari buruzko neurriak.....	139
9.	JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN AZTERKETA.....	141
9.1.	Jasangarritasun energetikoaren eskakizunetara egokitzearen ebaluazioa	142
9.2.	Eraikinetan eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzearen ebaluazioa	143

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

9.3. Mugikortasunaren azterketa, energia-kontsumoaren ondorioetarako, garraio pribatuaren erabileraren alternatibak eta motorrik gabeko mugikortasuna eta mugikortasunik eza sustatzeko politikak barne hartuta	145
9.4. Kanpoko argiteria publikoaren azterketa.....	145
10. INGURUMENA ZAINTEZKO PROGRAMA	146
10.1. Kontrol-helburuak	146
10.2. Legeria	146
10.3. Jarraipenaren xede diren ingurumen-sistemak, -alderdiak eta -aldagaiak identifikatzea	153
10.4. Adierazleak finkatzea	153
10.5. Ikuskapen-programa	156
10.6. Ingurumena Zaintzeko Plana betetzearen arduraduna	156
11. INGURUMEN-SINTESIA	157
11.1. Testuinguru orokorra	157
11.2. Lurralde Plan Partzialaren proposamen nagusiak.....	157
11.3. Egindako ingurumen-ebaluazioaren laburpena.....	158
12. LABURPEN EZ-TEKNIKO.....	160
12.1. Ingurumen-ebaluazioaren prozedura	160
12.2. Planaren irismena, edukia eta garapena.....	160
12.3. Aukerak	167
12.4. Beste plan batzuekiko erlazioa.....	169
12.5. Ingurumenaren egoeraren deskribapena	170
12.6. Proposatutako planaren ingurumen-eraginak.....	172
12.7. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak	173
12.8. Ingurumena zaintzeko programa	173

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

GRAFIKOAK

1. GRAF. AIZKORRI-ARATZ EREMUKO NBAP-AK PROPOSATUTAKO ZONIFIKAZIOA	19
2. GRAF. GORBEIAKO NBAP-AK PROPOSATUTAKO ZONIFIKAZIOA	20
3. GRAF. IZKIKO NBAP-AK PROPOSATUTAKO ZONIFIKAZIOA	21
4. GRAF. VALDEREJOKO NBAP-AK PROPOSATUTAKO ZONIFIKAZIOA	22
5. GRAF. ARASUR INGURUAN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA.....	28
6. GRAF. LANGRAIZ OKA- VITORIA-GASTEIZEN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA	30
7. GRAF. MAXXAM INGURUKO ZABALTZE-PROPOSAMENA.....	32
8. GRAF. AIREPORTUAN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA.....	33
9. GRAF. ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOAN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA.....	35
10. GRAF. ARAKAKO BASE MILITARRAKO DEFENTSA NAZIONALERAKO INTERES ZONALDEA	36
11. GRAF. GOIAIN- LLADIEN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA.....	37
12. GRAF. AGURAINEN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA.....	38
13. GRAF. ASPARRENAN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA.....	39
14. GRAF. LANTARONEN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA	40
15. GRAF. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO GOBERNANTZA, HIERARKIA-ORDENEAN	47
16. GRAF. PILATUTAKO URTEKO PREZIPITAZIOA, 2021EAN.....	68
17. GRAF. KLIMOGRAMA, ARKAUTE METEOROLOGIA-ESTAZIOKO DATUETAN OINARRITUTA	69
18. GRAF. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO MAPA GEOLOGIKOA	71
19. GRAF. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO MAPA HIDROLOGIKOA	73
20. GRAF. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LANDAREDI-MAPA	74
21. GRAF. NATURA 2000 SAREAREN BANAKETA ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEAN	75
22. GRAF. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO UHOLDE-ARRISKUA	77
23. GRAF. VITORIA-GASTEIZ EREMUKO UHOLDE-ARRISKUA	77
24. GRAF. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO SUTE-ARRISKUA.....	78
25. GRAF. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO AKUIFEROEN KALTEBERATASUNA	79
26. GRAF. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO ARRISKU SISMIKOA.....	80
27. GRAF. BEG-EN ISURIEN EBOLUZIOA 2005-2018 ARTEAN	81
28. GRAF. SEKTORE ISURTZAILEEN KONTRIBUZIOA.	81
29. GRAF. BATEZBESTEKO TENPERATURAREN PROIEKZIOA XXI.MENDEAN ZEHAR.....	83
30. GRAF. BATEZBESTEKO PREZIPITAZIOEN PROIEKZIOA XXI.MENDEAN ZEHAR.....	83
31. GRAF. BATEZBESTEKO PREZIPITAZIOEN URTAROKO PROIEKZIOA XXI.MENDEAN ZEHAR.....	84
32. GRAF. EREMUKO PAISAIA-UNITATEAK	86
33. GRAF. GORBEIAKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA.....	101
34. GRAF. ENTZIAKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA.	102
35. GRAF. ARASURREKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA.....	103

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

36. GRAF. BADAIA MENDILERROKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA	104
37. GRAF. TUYO MENDILERROKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA.....	105
38. GRAF. GASTEIZKO MENDIETAKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA	106
39. GRAF. ARKAUTEKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA.	107
40. GRAF. ASPARRENAKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA	108
41. GRAF. JUNDIZEKO ELKARGUNEA ETA AZPIEGITURA BERDEAREN PROPOSAMENA.....	109
42. GRAF. BALORE AGROLOGIKO HANDIKO LURZORUAK LANGRAIZ OKA-VITORIA-GASTEIZEKO HHPAN.....	111
43. GRAF. BALORE AGROLOGIKO HANDIKO LURZORUAK AGURAINEN HHPAN.....	111
44. GRAF. GOIAIN-LLADIEKO HHP-AN DAUDEN ARRISKU NATURALAK.....	116
45. GRAF. GOIAIN-LLADIEKO HHP-AN DAUDEN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK	116
46. GRAF. ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOKO HHP-AN DAUDEN ARRISKU NATURALAK.....	117
47. GRAF. ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOKO HHP-AN DAUDEN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK	117
48. GRAF. LANGRAIZ-GASTEIZ HHP-AN DAUDEN ARRISKU NATURALAK	118
49. GRAF. LANGRAIZ-GASTEIZ HHP-AN DAUDEN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK	118
50. GRAF. AIREPORTUKO HHP-AN DAUDEN ARRISKU NATURALAK.....	119
51. GRAF. AIREPORTUKO HHP-AN DAUDEN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK.	119
52. GRAF. ARASURREKO HHP-AN DAUDEN ARRISKU NATURALAK.....	120
53. GRAF. ARASURREKO HHP-AN DAUDEN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK	120
54. GRAF. LANTARONEKO HHP-AN DAUDEN ARRISKU NATURALAK.....	121
55. GRAF. LANTARONEKO HHP-AN DAUDEN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK	121
56. GRAF. AGURAINEN HHP-AN DAUDEN ARRISKU NATURALAK.....	122
57. GRAF. AGURAINEN HHP-AN DAUDEN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK	122
58. GRAF. ASPARRENAKO HHP-AN DAUDEN ARRISKU NATURALAK.	123
59. GRAF. ASPARRENAKO HHP-AN DAUDEN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK	123

EGNIBIDEA. Dokumentu hau Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren espezializatutako espazioa jabetza orokorra duen Plan hori. Ezaugarriak eta Hiri Agendako sarturak 2024ko urteren 7ko Aginduraren bidez onartu zituzten behin.

Para hacer constar que el presente documento es el Plan Partzial de Especialización del Espacio Público de la Zona Urbana de la Provincia de Álava, aprobado por el Consejo de Vigilancia del Plan Territorial Funcional de Álava, el día 7 de octubre de 2024.

EXPEDIENTE Nº 1/2024
MAYORADO DE ALAVA
SECRETARÍA DE URBANISMO Y PLANEAMIENTO TERRITORIAL

LURRALDE PLANATZAREN ETA HIRI AGENDAREN 7. ARTIKULOAREN BAZKIDETZA ONARTZEAREN BARRUTIAK
EL DIRECTOR DE ADMINISTRACIÓN TERRITORIAL

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

1. Sarrera

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalak osatzen du Planaren esparru geografiko edo lurralde-esparrua, hurrengo udalerrri hauek osatzen dutena: Agurain/Salvatierra, Alegría-Dulantzi, Armiñón, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Campezo/Kanpezu, Kuartango, Elburgo/Burgelu, Iruña de Oca/Iruña Oka, Iruraz-Gauna, Lagrán, Lantarón, Legutio, Otxandio, Peñacerrada-Urizaharra, Erriberagoitia/Ribera Alta, Ribera Baja/Erriberabeitia, Añana, San Millán/Donemiliaga, Ubide, Urkabustaiz, Valdegovia, Valle de Arana/Harana, Vitoria-Gasteiz, Zaldondo, Zambrana, Zigoitia, Zuia eta Badaiaiko eta Entziako Elkarrekikoak barneratzen ditu ere.

2.330.23 km²-ko azalera hartzen du, EAeko antolamendu-unitaterik handiena izanik, eta Arabako Lurralde Historikoaren azaleraren % 77ra iristen da. 282.000 biztanle baino gehixeagorekin, Vitoria-Gasteiz hiriburua protagonista duen makrozefalia indartsu batek ezaugarritzen duen lurraldea da, non biztanleriaren % 80 baino gehiago bizi den. Aldi berean, eremuko kokaguneen egitura lurralde osoan sakabanatutako 326 biztanle-gunek osatzen dute, gehienak 100 biztanletik beherakoak.

Beraz, biztanleria-dentsitate txikiko lurraldea da (Vitoria-Gasteiz izan ezik, zerbitzu eta ekipamendu gehienak biltzen baititu), non balio handiko naturagune babestuek eta azpiegitura berdeko sareak, oro har, lurraldearen zati handi bat hartzen duten, eta landa- eta ekonomia-garapenerako baldintza ezin hobekak dituen, balio agrologiko handiko lurzoruko eremu handiei eta jarduera ekonomikoak garatu nahi diren hiri-hazkundeko perimetroen diseinuari esker.

Araba Erdialdeko Eremu Funzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

INGURUMEN IZAPIDEAK	HIRIGINTZAKO IRIZPIDEAK
	AURRERAPENAREN AURRETIK EZTABAIDATZEKO PROPOSAMENA
	PARTZE-HARTZE PUBLIKOA - Inkestak eta iradokizun-aldia
HASTEKO ESKABIDEA	PLANAREN AURRERAPENA
Eskaera + LPParen zirriborroa + Hasierako Dokumentu Estrategikoa	
ERAGINDAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ETA PERTSONA INTERESDUNEI EGINDAKO KONTSULTAK	ENTZUNALDIRAKO EPEA
Kontsultak egiteko zirriborroa eta hasierako dokumentua. 45 egun baliodun	Aurrerapena herri-administrazio guztiei bidaliko zaie, oharrak, iradokizunak, alternatibak eta proposamenak egin ditzaten.
IRISMENEN DOKUMENTUA (ID) (ingurumen-organoa)	2 hilabete
4- INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOA (IAE)	HASIERAKO ONARPENA
JENDAURREAN JARTZEA (gutxienez 45 egun baliodun eta 2 hilabete hirigintza-izapideetarako) Alegazioak eta iradokizunak onartzeko epea (hilabete, hirigintza-izapideak egiteko) Eraginpeko eskumenak dituzten administrazioei eta pertsona interesdunei txostenak eskatzea.	
5- INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKO OSOAREN ESPEDIENTEA	BEHIN-BEHINEKO ONARPENA
Organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa bidaliko dio ingurumen-organoari: Planaren azken proposamena + IAE + Informazio publikoaren emaitzak eta kontsultak + Planean ingurumen-alderdiak txertatzeari eta IDra egokitzeari buruzko dokumentua.	Batzordeak espediente eta bere txostena igorriko dizkio Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari, eta hark dagokien proposamena igorriko dio Eusko Jaurlaritzari, Plana behin betiko onar dezan.
6-INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA (ingurumen-organoa)	BEHIN-BETIKO ONARPENA
PLANAREN ONARPENAREN PUBLIZITATEA	

1.TAULA. INGURUMEN- ETA HIRIGINTZA-PROZEDURAREN BATERAKO IZAPIDETZEA

Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa prozesu nahiko konplexua da, eta honako hauek hartzen ditu bere baitan: LPPren berrikuspena sustatu duten organoak, hau da, Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia. Azken hori funtsezko eragilea da proiektua kofinantzatzean eta berrikuspenaren helburuak, estrategiak eta ekintza-ildoak zehazterakoan, lurralde historiko osoko biztanle

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

gehienak bizi diren eremu funtzional batean; organo substantiboa, Plana onartzeko eskumena duen administrazio publikoaren organoa (Eusko Jaurlaritza); ingurumen-organoa eskuduna, hura izapidetu eta ebaluatzen duena (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza).

Prozedurak, gainera, kontsulta-izapide bat du, jendaurreko informazioko prozedura bat barne hartzen duena, non administrazio publikoen, izaera desberdineko elkarten edo partikularren alegazio eta txostenei erantzuten baitzaie.

Ingurumen-ebaluazioa LPPa idatzi eta izapidetzeko aldia egin behar da, eta nahitaez osatu behar da behin betiko onartu baino lehen, eta izapide loteslea izango da.

Zehazki, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedurak honako fase hauek barne hartzen ditu, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen II. tituluko I. kapituluko 1. atalean jasotakoaren arabera:

a. Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera

Organo substantiboak ingurumen-organuari bidaliko dio ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera, hasierako dokumentu estrategikoarekin eta LPPren berrikuspenaren zirriborroarekin batera.

Dokumentu hau egitea Planaren sustatzaileari egotz dakioken lehen izapidea da, Ingurumen-Azterketa Estrategikoa idatzi aurretik. Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen 18. artikuluan hasierako dokumentu estrategikoak landu beharreko alderdiak ezartzen dira:

- a. Plangintzaren helburuak.
- b. Proposatutako plan edo programaren irismena eta edukia, eta teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arrazoizko aukerak.
- c. Planaren edo programaren garapen aurreikusgarria.
- d. Ingurumen-inpaktu potentzialak, klima-aldaketa kontuan hartuta.
- e. Sektore- eta lurralde-plan konkurrenteetan aurreikus daitezkeen gorabeherak.

Organo substantiboak egiaztatuko du hasteko eskaerak barne hartzen duela nahitaezko dokumentazioa, ingurumen-organuari bidali aurretik.

Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera jaso eta hogeitun egun baliioduneko epean, ingurumen-organoa ez onartzea ebatzi ahal izango du, honako arrazoi hauetakoren batengatik:

- a) Argi eta garbi uste badu plana edo programa bideraezina dela ingurumen-arrazoientzat.
- b) Hasierako dokumentu estrategikoak kalitate-baldintza nahikoak betetzen ez dituela uste badu.
- c) Aurkeztutako planaren edo programaren funtsean antzekoa den ingurumen-adierazpen estrategiko bat onartu ez badu edo eman badu.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

b. Aurretzako kontsultak eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea

Ingurumen-organoak, lehen deskribatutako hasierako dokumentazioa jaso ondoren, eragindako administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatuko ditu, eta haiei bidaliko die dokumentazioa, egoki iritzitako iradokizunak eta oharrak bidal ditzaten 45 egun balioduneko epean, jasotzen direnetik zenbatzen hasita. Horiek izango dira ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko behar diren irizpen-elementuak.

c. Ingurumen-Azterketa Estrategikoa idaztea

Ingurumen Azterlan Estrategikoa organo sustatzaileak (erredakzio-taldearen bitartez) Araba Erdialdeko LPParen berrikuspenaren aplikazioak ingurumenean izan ditzakeen ondorio esanguratsuak identifikatu, deskribatu eta ebaluatzeko erabiltzen duen dokumentua da, baita arrazoizko alternatiba batzuk ere, teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak, besteak beste zero aukera barne (berrikuspena ez egitea), LPPren helburuak eta lurralde-eremua kontuan hartuta. Idazketa-taldea osatzeko, irismen-dokumentuaz gain, 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako zehaztapenak hartuko dira kontuan:

- a) Planaren edo programaren edukiaren, helburu nagusien eta beste plan eta programa egoki batzuekiko harremanen zirriborroa;
- b) Ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak eta plana edo programa aplikatu ezean izan dezakeen bilakaera;
- c) Eragin nabarmena jasan dezaketen eremuen ingurumen-ezaugarriak eta bilakaera, planaren edo programaren indarraldian espero den klima-aldaketa kontuan hartuta;
- d) Planerako edo programarako garrantzitsua den edozein ingurumen-arazo, bereziki ingurumenean garrantzi berezia duen edozein eremurekin lotutako arazoak, hala nola naturguneei eta espezie babestuei buruzko legeriaren arabera izendatutako eremuak eta Natura 2000 Sareko espazio babestuak;
- e) Nazioartean, Erkidegoan edo estatuan ingurumena babesteko finkatutako helburuak, planarekin edo programarekin zerikusia dutenak, eta helburu horiek eta ingurumen-alderdi guztiak nola hartu diren kontuan plana edo programa egiterakoan;
- f) Ingurumenean eragin ditzakeen ondorio esanguratsuak, honako alderdi hauek barne: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, klima-faktoreak, klima-aldaketan duten eragina, bereziki planarekin edo programarekin lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia, ondasun materialak, kultura-ondarea, paisaia eta faktore horien arteko lotura. Ondorio horiek barnean hartu behar dituzte ondorio sekundarioak, metatzaileak, sinergikoak, epe labur, ertain eta luzekoak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak;
- g) Plana edo programa aplikatzeak ingurumenean duen eragin negatibo garrantzitsu oro prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak, klima-aldaketan duen eragina arintzeko eta hartara egokitzea ahalbidetzeko neurriak barne;
- h) Kontuan hartutako alternatibak hautatzeko arrazoiaren laburpena eta ebaluazioa egiteko moduaren deskribapena, zailtasunak barne, hala nola eskatutako informazioa biltzerakoan aurkitutako gabezia teknikoak edo ezagutza eta esperientzia falta;
- i) Ingurumena zaintzeko programa bat, jarraipenerako aurreikusitako neurriak deskribatzen dituenak;
- j) Aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-teknikoa.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Ingurumen-azterketa estrategikoak txostenaren kalitatea ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen den informazioa ere jasoko du. Horretarako, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Dauden ezagutzak eta ebaluazio-metodoak.
- Planaren edukia eta xehetasun-maila.
- Erabakitzeko prozesuaren zein fasetan dagoen.
- Alderdi jakin batzuen ebaluazioa prozesuaren beste fase batzuetan osatu behar da, berriro gerta ez dadin.

d. Planaren hasierako bertsioa eta jendaurreko informazioa eta eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egitea

Sustatzaileak LPPren hasierako bertsioa egingo du, ingurumen-azterketa estrategikoa kontuan hartuta, eta bi dokumentuak aurkeztuko dizkio organo substantiboari.

Bestalde, organo substantiboak LPParen hasierako bertsio hori jendaurrean jarriko du, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarri ondoren, eta eragindako administrazio publikoei eta aurrez kontsultatutako pertsona interesdunei kontsulta egingo die. Jendaurreko informazioa eta kontsultak, gutxienez, berrogeita bost egun baliiodunekoak izango dira.

e. Planaren azken proposamena eta espedientearen azterketa teknikoa

Jendaurreko informazioaren eta kontsulten fasea amaitutakoan, izapide horretan egindako alegazioak kontuan hartuta, sustatzaileak ingurumen-azterketa estrategikoa aldatuko du, hala badagokio, eta LPPren berrikuspenaren azken proposamena egingo du.

Organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa bidaliko dio ingurumen-organoari:

- LPPa berrikusteko azken proposamena.
- Ingurumen-azterketa estrategikoa.
- Informazio publikoaren eta kontsulten emaitza.
- Laburpen-dokumentu bat, zeinean sustatzaileak deskribatuko baitu planaren edo programaren azken proposamenean ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta irismen-dokumentuari nola egokitzen zaizkion, egindako kontsulten emaitzak eta kontsulta horiek nola hartu diren kontuan.

Ondoren, ingurumen-organoak espedientearen azterketa teknikoa egingo du, eta LPP ingurumenean aplikatzeak izango dituen eragin esanguratsuen azterketa.

f. Ingurumen-adierazpen estrategikoa

Espedientearen azterketa teknikoa amaitu ondoren, ingurumen-organoak ingurumen-adierazpen estrategikoa egingo du. Ingurumen-adierazpen estrategikoa nahitaezko txostena izango da, erabakigarria, eta prozeduraren mugari nagusiak laburbiltzen dituen gertakarien azalpena izango du, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak barne, baita azkenean onartzen edo hartzen den LPPn sartu beharreko azken zehaztapen, neurri edo baldintzak ere.

Organo sustatzaileak, idazketa-taldearen bitartez, LPPren berrikuspenaren behin betiko proposamena egingo du, Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren edukia gehituta.

3. Planaren irismena, edukia eta garapena

3.1. Planaren aurrekariak

Indarrean dagoen Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartu zen Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren abenduaren 28ko 277/2004 Dekretuaren bidez. 2018an, urriaren 9ko 145/2018 Dekretuaren bidez aldatu zen, Jundiz-Billodako terminal logistiko intermodala eraiki ahal izateko.

3.2. Eremua

Aurkeztutako aurrerapen-dokumentuaren arabera, planaren eremu geografikoa edo lurralde-eremua Araba Erdialdeko Eremu Funtzionala da, eta honako udalerrri hauek osatzen dute: Agurain/Salvatierra, Alegría-Dulantzi, Añana, Armiñón, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Campezo/Kanpezu, Elburgo/Burgelu, Erriberagoitia/Ribera Alta, Harana/Valle de Arana, Iruña Oka/Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Lagrán, Lantarón, Legutio, Otxandio, Peñacerrada/Urizaharra, Ribera Baja/Erriberabeitia, San Millán/Donemiliaga, Ubide, Urkabustaiz, Valdegovía/Gaubea, Vitoria-Gasteiz, Zalduondo, Zambrana, Zigoitia eta Zuia, eta barnean sartzen dira Badaia eta Entziako Partzuergoak.

3.3. Helburuak

Jarraian, LAGen printzipio gidariak jasotzen dira, Araba Erdialdeko LPParen berrikuspenak bere gain hartzen dituenak.

- Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuen balioa ingurune fisikoaren antolamenduan sartzeara.
- Lurraldearen antolamenduan espezifikoki ikusaratzeara landa-habitata.
- Hiri-sistemara eraldaketa-ardatzen figura gehitzea
- Artifiziala den lurzoruen erabilera optimizatzea, hiri-berroneratzea eta erabileren nahasketa sustatuz, baita hiri-hazkundearen perimetroaren bitartez mugarik gabeko hazkundera saihestea ere.
- Ekonomia-jarduera berrietarako lurzoruen beharrari azkar eta modu eraginkorrean erantzutea, dagoeneko badagoen lurzorua birgaitzearen, berritzearen eta berriro dentsifikatzearen alde eginez.
- Lurraldean antolamendurako tresnen bitartez paisaiaren kudeaketa txertatzea.
- Baliabideen kudeaketa jasangarriaren kontzeptua sartzeara: ura, energiaren burujabetza, ekonomia zirkularra eta lotutako autosufizientzia (lehengaien baliabideak).
- Mugikortasun eta logistika jasangarria sustatzea, arreta berezia emanez oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari, modalitate anitzeko garraio publikoari eta garraio mota desberdinen konbinazioaren optimizazioari, abiadura handiko trenen zerbitzua izango den garaian.
- Zeharkako gai berriak txertatzea lurraldearen antolamenduan, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, euskara, klima-aldaketa, osasuna eta lurraldeen arteko harremana.
- Lurraldearen antolamenduaren politika publikoaren kudeaketan gobernantza ona sustatzea, funtsean, planen jarraipenaren eta ebaluazioaren, parte-hartzearen eta integrazio administratiboaren bitartez.

LAGek, halaber, Eremu Funtzional bakoitzerako jarraibide espezifikoak ezartzen dituzte. Kasu honetan, Arabako Lautadako eraldaketa-ardatzei egiten diete erreferentzia, eta jarraibide hauek zehaztu dituzte:

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

- Lautada inguratzen duten natura-eremu baliotsuen eta barnealdeko natura-eremu garrantzitsuen (Salburua, hariztien irla, ibaietako arroak, etab.) artean lotura ekologikoa bermatzea. Testuinguru honetan, kontuan izan behar dira Vitoria-Gasteiz hiria (tokiko azpiegitura berdearen parte da) eta haren luzapenak, jarraipen ekologikorako oinarri garrantzitsuak baitira.
- Vitoria-Gasteizen ekialdean eta mendebaldean ardatz-lerroa garatzea, Iruña Okaraino mendebaldetik eta Aguraineraino ekialdetik, ADIFen trenbidearen-ardatza jarraituz eta Burgelu eta Alegria-Dulantzi udalerriak barne hartuz. Eremu-ardatza Armiñonetik Araira luzatzeko aukera azter daiteke, batez ere mugikortasunari eta ibilbide bigunei dagokienez.
- Eraldaketa-ardatz honen barruan Vitoria-Gasteizko hiriaren barne-ardatza kontuan hartzea, aireportuarekin, autobusen geltokiarekin, hiriaren erdiguneko berrikuntza-nodoarekin eta Unibertsitatearekin; baita hiriaren azpiegitura berdea eta inguruko natur ondarearekin duen harremana ere.
- Dagoeneko badauden kokalekuetan eraikitzeko jarduketak hiri-lurzorua dentsifikatu eta puntualki okupatzeko jardueretan pilatzea, kalifikatutako lurzorua gehiago hedatzea saihestuz, eta Arabako Lautadako erabilera industrial eta logistikoetarako lurzoruen hazkundera ahalbidetuz, bat etorritz paisaiaren ezaugarriekin eta lurralde honen kokalekuen sistema tradizionalarekin.
- Garraio publikoaren bidez Arabako Mendialdea eta Ibarrek Lautadarekin eta hiriarekin batuko dituen ibilbide desberdinak lotzea.

LPParen berrikuspenak, beraz, erronka hauek jorratuko ditu:

- Kalitatezko enplegua sortzeko oinarri ekonomikoa modernizatzea eta dibertsifikatzea.
- Despopulazioaren prozesua lehengoratzeta.
- Bizi-kaliterako dimentsio berriak: biztanleen zahartzeari aurre egitea.
- Baliabide biofisikoen erabileraren mailak murriztea.
- Biodibertsitatea zaindu eta ugartzea.
- Hurbileko lurraldeekin duen lurralde-lotura hobetzea.

3.4. Planteatu diren estrategiak

Berrikuspen honetan garatutako proposamenak honako ekintza-ardatz hauetan sailka daitezke:

1. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua birformulatzea.
2. Landa-habitata eta nekazaritzako elikagaien tokiko sistemak indartzea.
3. Eremu funtzionala osatzen duten hiri-habitatak.
4. Paisaia eta kultura-ondarea: paisaia-ekintzaren balioak, aukerak eta irizpideak.
5. Baliabideen kudeaketa iraunkorra: 3E2030.
6. Mugikortasun iraunkorra bultzatzea eta garatzea: LAGetako proposamenak integratzea.
7. Klima-aldaketa egokitzea eta arintzea.
8. Lurraldearen gobernantza integratzaileagoa: hedapena eta parte-hartzea.

3.4.1. Urbanizatu ezin diren lurzoruen antolamenduaren birformulazioa

Ingurune fisikoaren antolamendua

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek dituzten ildo berrietatik abiatuta, LPPren ikuskapenak lurzoru urbanizaezina berrantolatzeke LAGetako sei kategoria ezarri nahi ditu, jarraian beren azalerekin sailkatzen direnak:

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

- a. **Babes Berezia:** 100.340,87 Has
- b. **Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabalekoa. Balio estrategiko altua:** 17.498,60 Ha
- c. **Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabalekoa. Trantsizioko landa-paisaia:** 52.525,98 Ha
- d. **Basoa:** 29.526,05 Ha
- e. **Ingurumenaren Hobekuntza:** 2.279,72 Ha
- f. **Mendi-larreak:** 1.341,52 Ha
- g. **Gainazaleko Uren Babesa:** 14.663,24 Ha

Alde nabarmenak daude kategorien azaleretan, indarreko lurralde-plangintzarekin edo UDALPLANen jasotako datuen bidezko udal-plangintzarekin alderatzen baitira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

	LPParen berrikuspena (Ha)	UDALPLAN (Ha)
Babes Berezia	100.340,87	78.420,11
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabalekoa: balio estrategiko altua	17.498,60	61.635,84
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabalekoa: trantsiziozko landa-paisaia	52.525,98	
Basoa	29.526,05	55.617,34
Ingurumenaren hobekuntza	2.279,72	3.760,76
Mendi-larreak	1.341,52	2.293,23
Gainazaleko Uren Babesa	14.663,24	13.468,04

2.TAULA. AZALEREN KONPARAKETA, LPP BERRIKUSPENAREN KATEGORIEN ETA UDAL-PLANGINTZAREN ARTEAN.

Azaleretan hautemandako aldaketak proposamen berriaren barruko plangintza-irizpide desberdinen ondorio dira. Oro har, alde handienak Babes Bereziko eta Basozaintzako kategorietan daude; lehenengoan, kategoriak nabarmen handitzen du azalera, baso-kategoriaren kaltetan, batez ere Natura 2000 guneak sartzeagatik, baina baita interes geologikoko lekuak eta kudeaketa-planak dituzten faunaren interes bereziko eremuak sartzeagatik ere.

Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko kategoriari dagokionez, trantsizioko landa-paisaien azpikategoria berria sortzeaz gain (Nekazaritza eta Basozaintzako LPSean ezarritakoarekiko azalera handitzen duena, nekazaritza-balio handiagoa duelako), balio estrategiko handiko azpikategoriak azalera murrizten du, azaleko urak babesteko kategoria sartzen baita, eta aldi berean, azalera handitu egiten da, batez ere urtegiak sartu direlako.


Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Baliabide Naturalak Antolatzeko Planetatik (NBAP) datorren alde aurreko zonakatzea duten espazio babestuen kasuan, espazio horien antolamenduak, plangintzak eta kudeaketak berriazko tresnetara jotzen du.

Ondorengo planoetan naturagune babestuak aurkezten dira, bakoitzak bere NBAPak proposatutako zonakatzearekin. Lau dira lurralde-eremuan dauden naturagune babestuak: Aizkorri-Aratz, Gorbeia, Izki eta Valderejo.

NBAPak egitea eta onartzea, eremu bat parke natural izendatu aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen eskakizuna da.

• Gorbeiaiko NBAPa




Graf. 2 GORBEIAKO NBAP-AK PROPOSATUTAKO ZONIFIKAZIOA

Gorbeia izenez ezagutzen den lurralde horren zatia Parke Natural izendatu zen ekainaren 21eko 228/1994 Dekretuaren bidez, ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren bidez Natura Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onartu ondoren. Horrez gain, martxoaren 31ko 66/1998 Dekretuaren bidez, Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko I. Plana onartu zen.

Martxoaren 8ko 40/2016 Dekretuaren bidez, Gorbeia Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu da, eta Naturagune Babestua kontserbatzeko neurriak onartu dira.

• Valderejoko NBAPa



Graf. 4 VALDEREJOKO NBAP-AK PROPOSATUTAKO ZONIFIKAZIOA

Valderejo izenez ezagutzen den lurralde horretako zatia Parke Natural izendatu zen urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuaren bidez, urtarrilaren 14ko 3/1992 Dekretuaren bidez Baliabide Naturalak Antolatzeako Plana (NBAP) onartu ondoren. Horrez gain, ekainaren 18ko 146/2002 Dekretuaren bidez, Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana onartu zen.

Martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren bidez, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) izendatu da Kontserbazio Bereziko Eremua eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua, eta Naturagune Babestua kontserbatzeko neurriak onartu dira.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Plangintza-proposamen berriak, kategoria hori nabarmen handitu da, baso-kategoriaren kaltetan. Izan ere, Natura 2000 Sareko espazio asko sartu ziren 2012 eta 2016 urteen artean; izan ere, eremu horiek zonakatze zehatz bat badute ere, mugaketa horien zati handi batean Babes Bereziko Eremuak, Kontserbazio Bereziko Eremuak edo Leheneratze Ekologikoko Eremuak sartzen dira, eta hori Babes Bereziko Eremu gisa integratuko litzateke.

Era berean, kategoria hori zabaltzeko arrazoia da interes geologikoko lekuetako azaleratzeak eta onartutako kudeaketa-plan baten bidez mugatutako faunaren interes bereziko eremuak sartu direla.

b. Ingurumenaren Hobekuntza

2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidallerroetan ezartzen den bezala, ingurumen-hobekuntzaren kategoriak kontserbazio-proiektuak har ditzaketen lursail guztiak jaso beharko ditu, lehentasunezko zatitza jotzen baita haien bilakaera eta kalitate-maila handiagoetarantz garatzea.

LPParen berrikuspenak kategoria honetan sartzen ditu, beraz:

1. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ezarritako ingurumen-hobekuntzaren mugaketa eguneratzea eta egokitzea.
2. Arabako Erdialdeko Paisaiaren Katalogoaren arabera, paisaiaren kalitate-helburu hauekin lotutako mugaketak:
 - a. Meatze-ustategien paisaia-integrazioa sustatzea.
 - b. Larre eta sastraken paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea.
 - c. Baso-landaketan paisaia- eta ekologia-hobekuntza sustatzea.

Kategoria horrek Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ezarritako azaleraren antzekoa du, baina murriztu egiten da indarrean dagoen plangintzak agintzen duenari dagokionez, eta hori, batez ere, eskala-kontuei zor zaie. Geruza horrek 10 hektarea baino gutxiagoko mugaketak ezabatu ditu, eta beraz, kasu askotan, indarrean dagoen plangintzak ingurumen-hobekuntza gisa mugatutako zonakatze txikiak ezabatu ditu, kategoria hori lurralde-eskalan soilik adierazita. Hala, plan orokorrek mugatu ahal izango dituzte, udal-mailan, ingurumen-hobekuntzako kategoria izan dezaketen zonifikazioak.

c. Basoa

Baso-kategoriako lurzoruen proposamenak maila handiagoko kontserbazio-figurarik ez duten baso-lurzoruen hartzen ditu, edo Natura-Baliabideak Antolatzen Planen arabera, baso-ekoizpeneko eremu gisa mugatuta daudenak.

Aztertutako iturri kartografiko berriek zenbait aldaketa eta ezeguneratze dituzte, planen antzinasuna dela eta. Hori dela eta, LPSak basokotzat jotzen dituen lurzoruen zati bat babes bereziko kategoriara igaro dela azaldu da.

Gainera, kategoria hori neurri handi batean murriztu egiten da Natura Sarea sartu delako edo IGLak azaleratu direlako, hala nola Pobeseko konglomeratuak edo Subijanako kareharriak, lehen baso-kategoria gisa sailkatuta zeudenak.

d. Nekazaritza eta Abeltzaintza, eta Landazabala

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Nekazaritza- eta abeltzaintza-, eta landazabala-kategoriek bi azpikategoria dituzte: balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-lurzoruak (horien mugaketa Nekazaritza eta Basozaintzaren Lurralde Plan Sektorialak ezarritakotik dator gehienbat (plan eguneratuagoen ondoriozko mugaketa txikiak izan ezik) eta trantsizioko landa-paisaiak (indarreko plangintzan ez dago azpikategorizatorik).

Horregatik, zailagoa da indarreko planaren eta proposamen berriaren arteko alderaketa egitea; hala ere, Nekazaritza eta Basozaintzaren LPSari dagokionez, proposamenean, balio estrategiko handiak azalera murrizten duela ikusten dugu. Hori gertatzen da azaleko urak babesteko kategoria sartu delako, eta kategoria hori ez zegoen jasota Nekazaritza eta Basozaintzaren LPSean. Era berean, proposamenak LPSan ez dauden balio estrategiko altuko mugaketak irudikatzen ditu, onartutako Natura-Baliabideak Antolatzeko Planetatik ateratako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Ekoizpen Eremuaren zonakatzetik eratorritakoak.

Trantsizioko Landa Paisaiaren kategoriari dagokionez, Nekazaritza eta Basogintzaren LPSean ezarritakoarekiko azalera handitzea dakar proposamenak, gaur egun nekazaritza-erabilera duten edo, baldintzak direla-eta, nekazaritzarako potentzial handia duten eta lehen Baso – Mendi Barbana kategorian sartuta zeuden eremuak sartu direlako.

Horrekin guztiarekin, indarrean dagoen plangintzarekin alderatuta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko kategoriaren guztizko zenbaketa 7.000 hektarea baino gehiagokoa da.

e. Mendi-Larreak

Alturako abeltzaintzako zonak, mendiguneetako goreneko inguruetan daudenak hartzen ditu. Basorako esan den bezala, Nekazaritza eta Abeltzaintzako LPSak kategoria hori «Mendia» kategoria gorenean sartu du, eta horren barruan bereizi egin ditu Mendi-larreak – harkaitzak (harkaitzezko paretak handiak, irtengune ia bertikalekin) gainerako mendi-larreetatik (soropil lau eta trinkoak, kota altuetan daudenak, abeltzaintzako aprobetxamendu intentsiboarekin, urte-sasoikoa bada ere, eta artzainkultura tradizionalari lotutakoak).

Mendi-Larreak zonakatzeko proposamenaren arabera, gehienak Vitoria-Gasteizko iparraldean daude, N-622 eta A-3608 errepideetan, Gopegin barrena. Era berean, larre horien azalera aipagarria dago eremu funtzionalaren mendebaldeko muturrean, Quintarrilla/Valleruca mendietan eta, neurri txikiagoan, Langraiz Okako mendietan, Uribarriko urtegiaren hegoaldean eta ekialdean eta Izkiko Parke Naturalaren inguruko paisaietan.

Kategoria hori, ingurumen-hobekuntza bezala, murriztu egin da; izan ere, mendiguneetako kakumina-eremuetan kokatutako altuerako zonak, oro har Natura 2000 Sarean sartuta daudenak, babes bereziko eremu bihurtu ziren.

f. Gainazaleko Uren Babesa

Gainazaleko Urak Babesteko Kategoriak ibaiak eta errekek eta horiei dagozkien babes-eremuak barne hartzen ditu. Kategoria hori mugatzeko, beharrezkoa izan da ibaien ardatzei buruzko kartografia eguneratuena erabiltzea, Uraren Euskal Agentziatik (URA) datorrena.

URAREN geruza hori, gerora, Ibaien eta Erreken LPSak ezarritakoaren arabera egokitu da, ardatz eta arroi mailak (osagai hidraulikoa) emanaz eta ertz-geruza eguneratuz garatutako eremuen, komunikazio-azpiegituren, garapen berriko potentzialen eta landa-eremuaren egungo egoeraren arabera, ibai bakoitzaren atzerapenak ezarri ahal izateko eta, beraz, lurzorian duten kategorizazioa ezarri ahal izateko.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Bestalde, Hezeguneen LPSeko kontsiderazioak eta udal-plangintzako lurrazaleko uren babesak sartzen dira. Katgoria honetan sartu dira, beraz, urtegiak, horien afekzio-eremuak eta horietan sortzen diren uhartetxoak, urak gehieneko biltegitratze-maila lortzen duenean; izan ere, batzuetan beste kategorizazio bat merezi dezaketen erabilerak izan arren, urtegiaren ingurunearekin duten isolamenduak eta lotura argiak erabaki hori hartzea ekarri du.

Indarrean dagoen plangintzaren eta proposamen berriaren arteko alderaketa egitean, katgoria horren azalera pixka bat handitzen da, urtegiak eta trazaduraren eta ibilguaren zenbait aldaketa sartu direlako uholde-arriskuari buruzko azken kartografiaren arabera.

Elkarren artean konektatutako azpiegitura berdearen sarearen antolamendua

Azpiegitura berdea funtsezkoa da lurralde-eredu jasangarria diseinatzeko. Ildo horri eutsiz, LAGek ekintza asko kontuan hartzen dituzte, eta ikuskapen hau azpiegitura berde konektatua sortzen saiatuko da, egun paisaiaren unitateek duten segmentazioa eta banaketa konpondu eta elkar konektatuta funtzionatzeko.

Araba Erdialdeko azpiegitura berdea elementu hauek osatuko dute:

1. Beren ingurumen-balioengatik babestutako espazioak: katgoria honetan sartzen dira Gorbeaiako, Aizkorri-Aratzeko, Izkiko eta Valderejoko Parke Naturalak; Natura 2000 Sarean integratutako gunek, hala nola Salburua, Valderejo – Sobrón – Árcenako mendilerroa, Gorobel mendilerroa, Arabako hegoaldeko mendilerroak, Arabako Lautadako irla hariztien KBEak, Caicedo Yuso eta Arreoko Aintzira eta Añanako Diapiroko Biotopo Babestua, Entzia, Aldaiako Mendiak edo Arkamu – Gibillo – Arrastaria, eta Gasteizko Mendietako KBEak. Guztira 19 gune babestu daude, ingurumen-balioengatik.

Natura 2000 Sarea, landa-lurzoruaren zati gisa, LPPren kartografian sartuta dago, lurzoru horren katgoriei gainjarritako baldintzatzaille gisa, eta biodibertsitatearen kontserbazioari dagokionez, dagozkien kudeaketa-planen bidez arautzen dira:

- a) **Batasunaren Garrantzizko Lekuak [BGL].** Eskualde biogeografikoko habitatak eta espezie adierazgarriak dituzten lurralde-eremuak dira, eta babestu, zaindu, berreskuratu eta lehengoratu egin behar dira. BGL horietan sartzen diren habitatak eta espezieak Habitategi buruzko Zuzentzarauaren eranskinetan agertzen dira.
- b) **Hegaztien Babes Bereziko Eremuak [HBBE].** Hegazti migratzaileak nahiz sedentarioak kontserbatzeko eremu egokiak dira. Figura horretan, Europako Parlamentuaren basa-hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentzarauan definitzen den bezala, ugalketa- eta elikadura-eremuak eta horien habitat naturalak sartzen dira.
- c) **Kontserbazio Bereziko Eremuak [KBE].** BGLak halakotzat joko dira, Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen kontserbazioa, mantentzea eta leheneratzea bermatzeko kudeaketa-plana dutenean.

2. Natura-intereseko beste espazio batzuk: Katgoria honetako eremuak ez daude eremu babestuen aurreko bi katgoriatan katalogatuta, baina azpiegituran marraztu dira, ekologia- eta ingurumen-balioa altua dutelako eta ekosistema-zerbitzuak ematen

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

7. Nekazaritza ekologikorako erabiltzen den eremuko biodibertsitatea ugartzea eta jendea bizi den eremuetako biodibertsitatea areagotzea, hiriguneetan eta landa-nukleotan azpiegitura berde gehiago sartuz.
8. Enplegua gehitzea, bereziki gazteentzako enplegua.

3.4.3. Eremu Funtzionala osatzen duten hiri-habitatak

Eremu funtzionalako kokalekuen hierarkia

Araba Erdiguneko eremu funtzionalako kokalekuen hierarkia-sistema termino hauetan planteatzen da:

1. Goiburua: Vitoria-Gasteiz, Eremu Funtzionalaren eta bere kuadrillaren goiburua.
2. Azpiburuak:
 - i. Kanpezuko Kuadrilla- Arabako Mendialdea: Santikurutze Kanpezu, Kanpezun.
 - ii. Añanako Kuadrilla- Arabako Ibarrek: Ribabellosa
 - iii. Gorbeialdeako Kuadrilla: Murgia (Zuia)
 - iv. Arabako Lautadako Kuadrilla: Agurain
 - v. Otxandio eta Ubide: Otxandio
3. Nukleo artikulatzaileak:
 - i. Kanpezuko Kuadrilla- Arabako Mendialdea: Maeztu
 - ii. Añanako Kuadrilla- Arabako Ibarrek: Espejo (Valdegovia/Gaubea), Langraiz Oka
 - iii. Gorbeialdeako Kuadrilla: Legutio, Gopegi (Zigoitia), Izarra (Urkabustaiz).
 - iv. Arabako Lautadako Kuadrilla: Alegria- Dulantzi, Araia (Asparrena)

Hiri-Hazkundearen Perimetroak

Hiri-sakabanatzea saihesteko eta lurzoruaren kontsumoa kontrolatzeko tresna bat dira PCUak, behatutako eskaeretan oinarrituta, eta, azken finean, zigitatutako lurzorua murrizten laguntzen dute. Ez dute lurzoruaren sailkapenik eskatzen, baina hazkunde-ahalmenen kuantifikazioa aplikatzeko orientazio grafikoa ezartzen dute, bai eta eremu funtzionalako lurralde-jarduketetarako lehentasunezko hazkunde-dinamiken orientazioa ere, LAGen 11. artikulua ezartzen duen bezala.


Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

1. Landareak dituen muga perimetrala ezartzea, eremua integratzea ahalbidetuko duen eraztun berde gisa, eta Zadorra diseinuaren parte txertatuz.
2. Estalkietan landareak jartzea eta eguzki-panelak txertatzea.
3. Nekazaritzako lurzorua koroa zaintzea, paisaiaren muga baita.
4. Hobetzea ezinezkoa diren mugen zuzkidura-kalifikazioa.
5. Ertzeko pabiloien kanpo-diseinurako oinarri teknikoen garapena, oraindik gauzatu ez diren pabiloien irudi homogeneoa sortzeko edo izaera komuna proposatzeko, lerro xumeekin eta kolore argiekin. Oinarri horiek Paisaia Interes Bereziko Eremuarekin (PIBE) estetika orokorra izan beharko dute.

Lacorzanako eguzki-parkea sortzea eta Arasurreko 2. faseko I-09 “tanta” erabilera berdinerako bihurtzea. Horrek esan nahi du lurzoru horien zati handi batek lur gaineko panel fotovoltaikoak izango dituela eta dagozkien proiektuetan ezarritako baldintza teknikoak izango dituztela. Nolanahi ere, eraikuntzentzako paisaiaren katalogoaren jarraibideak erabilgarriak dira oraindik Arasurreko lehenengo fasean egiteke dagoen zatirako.

Mendebaldeko zatian Exolum Rivabellosako instalazioak daude, CLH hidrokarburoak biltegitratzeko instalazioak. Instalazio horiek irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuak arautzen ditu, sustantzia arriskutsuak dauden istripu larriek eragin ditzaketen arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzekoak (Seveso), eta Kanpoko Larrialdi Plana eta 205 metroko radioa duen esku-hartze eremua eta 255 metroko radioa duen alerta-eremua ditu.

● Iruña Oka– Vitoria-Gasteiz



Graf. 6 LANGRAIZ OKA- VITORIA-GASTEIZEN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA

Perimetro horrek 3.955,30 hektarea lurzoru hartzen ditu, eta 16 km inguruko geometria osatzen du muturren artean. Ekialdean Vitoria-Gasteiz hartzen du, bai eta haren ondoz ondoko hazkundeak ere, Alde Zaharreko muinoko jatorrizko finkamendutik hasi eta berrienetaraino. Halaber, proposatutako perimetroaren erdigunerik handienez Jundiz eta Ali Gobeo industria-eremuak sartzen ditu, eta mendebaldeko muturrean, berriz, Zadorraren hegoaldeko ekoizpen-espazioak; nahiz eta bi pieza horien artean gaur egun hiri-jarraitutasunik ez duen espazio bat dagoen, Gasteizko Jundizko plataforma logistiko intermodala industria-eremuen jarraitutasuna planteatzeko argudio bat da, mendi homonimoa kaltetu gabe eta dagozkion lurralde-hutsuneak gordez, sinergiak sustatuz. PCUk kanpoan uzten ditu Zadorra ibaia KBEaren eta haren babes-eremu periferikoaren barruko eremuak.

Hiri-hazkundearen perimetroa handitzeari dagokionez, Mercedes Benz-ekin lotutako instalazioak handitzeko, eragindako balio estrategiko handiko nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoruen azalerak konpentsatzeko beharra egon daiteke. Irla-hariztiaren babes testu bidez zehaztuko da araudian.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

paisaiaren irizpideak txertatuz. Horretarako, mugako eremuak naturalizatzea proposatzen da; natura-elementuak txertatzea eta egokitzea, esaterako, Mendizorrotz erreka edo Subillabide eta San José de los Llanos poligonoen artean dagoen eremuaren birlandaketa; soinu pantailen eta landareen bitartez paisaia eta akustika integratzea; estalkietan landaredia jartzea eta eguzki-panelak txertatzea; HAPOn hornikuntzetan ekipamendu gisa sailkatutako lurzoruen inguruan nekazaritzarako lurraz zaintzea; hobekuntzak egin ezin diren ertzetarako alternatibak zehaztea; ertzeko pabilioiak diseinatzeko eta eremuko edozein jarduketetarako oinarri teknikoak garatzea; eta Jundiz-Billoda terminal intermodalaren paisaiaren diseinuari arreta jartzea.

Eremuaren barruan erabilera eta baldintza desberdin ugari daude. Eratzun berdeak hiriaren erdigunearen inguruan egiten duen muga faktore positiboa da, baina mendebaldean galdu egiten da, eremu industrialagoa baita. Perimetroa jarraitua da kontzeptuaren aldetik, baina asmoa da paisaiaren eta ekologiaren iragazkortasunerako hiru puntu ezartzea:

1. Gasteizko mendiak-Zadorrako meandroa, Langraiz Oka nukleoaren hego-ekialdean. Horrek balizko zoru urbanizagarriak autobidearen eta trenbidearen artean diseinatzea ekarriko du, iragazkortasun hori ekoduktuen edo antzeko irtenbideen bitartez bermatuz.
2. Gasteizko mendiek eta Zadorrako meandroak Jundiz mendiaren inguruko Mendizorrotz errekaaren ardatz naturala osatzen dute, eta ibilgua osatzen duten eremuetan dagoeneko finkatuta dauden industria-lurzoruek baldintzatzen dute. A-1 eta N-102 errepideek osatzen duten korapiloa, abiadura handiak indartuko duen trenbidea, Jundizeko geltokia, eta Subillabide poligonoa Jundiz mendebaldeko luzapenaren 21. sektorearekin lotzen duen trenbidearen paraleloa den ekonomia-jarduera garatzeko aukera dira lotura baldintzatzen dutenak.
3. Zabalganako basoaren eta Zadorrak Mercedes-Benz fabrikaren inguruan duen ibilguaren artean dagoen Ibaiaren errekaaren jarraipena. Zehaztutako perimetroak Mercedesen zoru industrialak hegoaldera luzatzeko duen aurreikuspenak ezingo du baso horren eta arroaren ardatz berdearen jarraipenaren kalterako izan.

Bestalde, hiri-hazkundearen perimetroko mendebaldeko eremu honek lotura argia du “Zadorra Ertaina-Santa Katalina” paisaia-intereseko eremuarekin, izen bera duen ibaian zehar, eta Paisaiaren Katalogoak paisaia antolatzeko ekintza-plan bateratua proposatu du. Plan horrek trafiko astuna Jundizeko terminalera heltzeko irisgarritasunak izan ditzakeen baldintzatzaileak hartu behar ditu kontuan. Horregatik, komeni da ekintza-plan horren tratamendua adierazitako paisaiaren eta ekologiaren iragazkortasunerako puntuekin egokitzea. Horrek esan nahi du Langraitzera doan eratzun berdearen luzapenarekin hastea. Hiri-hazkundearen perimetroak Zadorraren bi alboetako ekosistemen fluxuarekiko duen iragazkortasuna Iruña Okako planeamenduaren berrikuspenaren hazkundearen konponbidearekin harmonizatu behar da.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

4. Perimetro honetan bizitegi-erabilerarik aurreikusten ez den arren, bideak behar direnez, hiri-hazkundearen perimetroa ibaiaren gainean planteatutako motak babestutako eremura mugatzen da, Zaia ibaiaren Defentsa Eraikitze Proiektua aintzat hartuta. Horren ondorioz, batez beste 85 m atzera egiten du muga horrek, planeamenduan aurreikusitakotik, ibaiaren ardatzari egokituta.

● Arabako Parke Teknologikoa



Graf. 9 ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOAN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA

Perimetro honetarako proposatutako azken bertsioak 389,06 hektarea hartzen ditu jarduera ekonomikoetarako, eta horietatik 120 ha Parke Teknologikoko hiri-lurzoruari dagozkio. Edukiera handiko bi bidetatik (AP-1 eta N-240) iristeko erraztasunak dituen eremua da, eta bi errepideetarako fatxada da. Goian-Lladieko perimetroarekin batera, aribidean dagoen industria-lurzoria sustatzeko ekimen publiko bat dago, eta eremu funtzionalaren iparraldean jarduera ekonomikoak sustatzen laguntzen du.

Hiri-hazkundearen perimetroaren azken bertsio horretan sartzen dira egungo teknologia-parkearen ondo-ondoan sailkatutako lurzoru urbanizagarriak, Mendigurengo Administrazio Batzarrak aurkeztutako idazkiaren arabera haren jabetzakoak diren lursailak izan ezik; izan ere, azken horien iritziz, lursail horiek hiri-hazkunderako prozesuetatik kanpo utzi behar dira. Baztertu egin dira, ordea, 284/2018 Errege Dekretuaren arabera Defentsa Nazionalerako Interes Eremuaren barruan dauden eta Arakako Base Militarri dagozkion lurzorua. Nolanahi ere, LPPan zehaztapen bat sartuko da, parke teknologikoko lurzoruaren aprobetxamendu handiagoa sustatzeko, trinkotzearen bidez, bai eta balio handieneko elementu naturalen kontserbazioaren bidez ere.

● Goiain-Lladie




Graf. 11 GOIAIN- LLADIEN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA

311,11 hektarea ditu eta barne hartzen ditu Goiaingo industrigunea hegoaldean eta N-240 errepidearen ekialdean urbanizatuta dauden eremuak, baita ekoizpen-jardueretarako lurzoru urbanizagarriak handitzeko SPILURREK proposatzen dituen lurak ere. Iparraldeko triangeluaren jarduketa horrek orain arte ezarpen isolatuak izan direnei koherentzia emateko aukera ahalbidetuko du, bere tamaina handia gorabehera. Gainera, lurzoru ez urbanizagarrietan jarduketak egiten dituen logikatik hiri-trama eraginkorra sortzera igaroko da, Goiaini dagokionez eguneratuta dauden plangintzekin.

Perimetrotik kanpo geratzen dira Zadorrako KBEaren eta haren babes-eremu periferikoaren barruan dauden eremuak, bai eta Zadorraren sistemako urtegien KBEaren eta haren babes-eremu periferikoaren barruan dauden eremuak ere.

Eremu honetan esanguratsua da Urrunaga urtegirantz eta N-240rantz eraikita dagoen fronte egokia ezartzea, baita AP-1etik ikusgarri dagoen frontea eta zati honetan eraikita dagoen abiadura handiko trena ere; izan ere, Gipuzkoatik etortzen direnek tunela uztean ikusten duten Arabako lehen irudia baita. Halaber, esanguratsua da Santa Engraziako azpiegitura berdearen proposamenean sartzea, zati horretan uholdeak pairatzeko arriskurik ez baitago. Beraz, tratamenduak bi baldintzak izan behar ditu kontuan.

● Agurain/Salvatierra



Graf. 12 AGURAINEN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA

367,86 hektareako eremua da, gehienak ekonomia-jardueretarako sailkatuak, baina iparraldean badira urbanizagarriak ez diren lurzoruak ere, basoen eta nekazaritzaren eta landazabalaren kategorian sartzen direnak. Araba Erdialdeko paisaiaren katalogoko “N1 igarobidearen (Agurain)” mugaketa berreskuratzen da, nahiz eta dagoeneko badauden hiriko bizilekuen ehunduraren zati bat eta dagoeneko aipatu diren lurzoru urbanizaezinak ere barne hartzen dituen. Paisaiaren kalitatearen helburua industriarako lurzoru paisaiaren aldetik txertatzeko eremua berrantolatzea da, haren itxura eta A-1tik duen pertzepzioa hobetuz. Aipatutako industria eremuetarako planteatu diren neurri berberak proposatu dira, Donejakue bidea txertatzeko baldintza gehituta.

Oraindik garatu ez den industria-lurzoruaren zati garrantzitsu bat ohiko trenbidearen lineak baldintzatzen du eta Iruñeranzko autobidearekin batera, eremuko hegoaldeko irisgarritasuna baldintzatzen du. Irisgarritasun hori Sallurtegi eta Langarika kaleetan sendotu beharko da. Eremuaren ekialdean etxebizitza ugari daude eta tren-geltokia dago, beraz, kontuan izan behar dira urak har ditzakeen ibilguak eta Langarika Plazaren ingurua eremu zaurgarria dela.

● Asparrena-Donemiliaga



Graf. 13 ASPARRENAN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA

256,85 hektareako eremua hartzen du, gehienak jarduera ekonomikoetarako. Perimetroaren azken aldaketan sartutako mendebaldeko lurzoru urbanizaezinak izan ezik, oro har hiri-lurzoru finkatua da, lurzoru urbanizaezinean hedadura txikiko eremu bat izan ezik (Salsamendi).

Arabako Erdialdeko Paisaiaren Katalogoko N1 Korridorea (San Millán/Donemiliaga) Paisaia Interes Berezikotako Eremuan sartzen da. Katalogoak lehendik azaldutakoen antzeko helburuak eta neurriak planteatzen ditu, industria nagusi den beste eremu batzuetarako. Aguraingo perimetroan gertatzen zen bezala, Iruñerako ohiko trenbidearen eta autobidearen presentziak lurzoru horien zati bat garatzeko ahalmena baldintzatzen du. Trenbidearen eta autobidearen arteko zerrenda lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago gaur egun, eta autobiatik eta trenbide-hesitik sartzeko mugak daudenez, Egilazetik (mendebaldean) edo Araiako geltokiaren hegoalderako bidetik (ekialdean) soilik sar daiteke, iparraldean dauden industrialdeekiko edozein lotura zailduz.

● Lantarón



Graf. 14 LANTARONEN PROPOSATUTAKO HIRI-HAZKUNDEAREN PERIMETROA

Lantarónko udalerrian definitutako perimetroak, Komunioi kokalekuaren mendebaldean, 140,21 hektarea hartzen ditu Zubillagako poligonoak, industria kimikora bideratuak, eta Lantarón-sui-2 poligonoak hartuz, azken hauek aniztasun handiagoarekin. S-2 lurzoru urbanizagarriaren sektorea ere barne hartzen du, baita A-2122 errepidearen eta Ebroren arteko bi poligonoen arteko espazioak ere. Alde batera uzten dira Ebroko KBEaren eta haren babes-eremu periferikoaren barruan dauden eremuak, gaur egun urbanizatuta daudenak izan ezik.

AP-1 autobidetik gertu egoteari esker, lurralde-irisgarritasun ona duen gunea da, eta sinergia potentzialak ditu Arasur inguruarekin, Arabako Haranetan produkzio-jarduerak garatzen lagun dezakeena.

Eremu horrek azalera handia behar duten enpresak hartzeko ahalmena du. Bertan, irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren mende dauden hiru instalazio daude (840/2015 Errege Dekretua, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena), eta Kanpoko Larrialdietarako Plan bana dute.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-pakete handiak dimentsionatzea

Eremu funtzionalak, gaur egun, hazteko gaitasun handia du berroneratu daitekeen hiri-lurzoruan, bereziki Vitoria-Gasteizko udalerrian (Gamarra, Betoño, Ehari Gobeu) eta hutsik dagoen hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian. Saillkapen berrien beharra eskariaren bilakaeratik (lurzatiaren formatu handiagoetarantz) eta dagoeneko sailkatuta dauden lurzoruetan bete ezin diren baldintzetan eskaria handitzetik etor daiteke.

Beraz, eskala horretatik arlo horretako jarduketan lehentasuna industriako hiri-berroneratzeko prozesuak dinamizatzea da, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen analisiari buruzko aurretiazko kudeaketak barne, definitutako hiri-hazkundeko perimetroen barruko eremuetako plangintzaren aurreikuspenak osatzearekin batera, eta, merkatuaren premien bilakaerari erantzuteko beharrezkoa izan daitekeen kasuetan, garapen-plangintza aldatzea edo berrikustea, lurzatiaren tamaina eta kokapena egokitzeko.

LAGek Berrikuntzaren Arkua Arabako Parke Teknologikoa, aireportua eta hari atxikitako parke industrialia eta salgaien geltoki intermodala integratuko dituen eremu gisa artikulatzen dute. Bertan, beharrezkoak diren lurralde-hutsuneak errespetatuz, iragazkortasuna bermatuz eta paisaiarekin integratuz, balio handiko jarduera ekonomiko, industrial, logistikoa eta teknologikoa garatu ahal izango dira.

Bestalde, 2021-2026 aldirako EAEko Suspertze eta Erresilientzia Programak (Euskadi Next) Araba Erdialdean eragin potentziala duten 16 ekimen planteatzen ditu; badirudi Basquevolt Gigafactory agentziak soilik lot ditzakeela zuzenean industrialdeetako jarduera ekonomikoko lurzoruaren eskariarekin; izan ere, eskura dagoen informazioaren arabera, Arabako Parke Teknologikoan proposatutako hiri-perimetroan leku ezin hobea izango luke. Bestalde, 10 hektareatik gorako lurzati handietan, lurzoru produktiborako eskariak hauteman dira; horiek Miñanon, Goian-Lladien, Lantaronen edo Arasurren bete daitezke perimetro horretan.

Bizitegi-kuantifikazioa

LAGen IV. eranskinean definitutako bizitegi-kuantifikazioaren formula eta Memoriaren 6.4.6. puntuan zehaztutako datuak eta baldintzak aplikatu ondoren, Eremu Funtzionalako udalerrri bakoitzerako datuekin ateratzen den taula aurkezten da:

Udalerrriak	LEZ	A1	A2	B1	B2	C1	BP	BPb	C2	BA	Amax	Amin	BA2
Agurain/Salvatierra	0	267	126	14	0	24	431	1.121	51	1.070	1.277	255	1.070
Alegria-Dulantzi	0	465	79	7	0	33	584	1.518	26	1.492	643	129	643
Añana	0	-2	4	1	0	0	3	9	5	4	117	23	23
Armiñón	0	14	6	5	0	2	27	81	3	78	81	16	78
Arraia-Maeztu	0	18	19	9	0	4	50	150	13	137	328	66	137
Arratzua-Ubarrundia	0	77	26	19	0	9	131	367	11	356	270	54	270
Asparrena	0	16	40	13	0	5	74	207	22	185	562	112	185
Barrundia	0	69	23	23	0	9	124	372	11	361	279	56	279
Berantevilla	0	8	12	5	0	2	27	81	7	74	170	34	74
Bernedo	0	2	13	4	0	2	21	63	12	51	308	62	62
Campezo/Kanpezu	0	6	27	8	0	3	44	123	19	104	482	96	104
Elburgo/Burgelu	0	53	16	10	0	6	85	255	6	249	146	29	146

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena
-BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Udalerrriak	LEZ	A1	A2	B1	B2	C1	BP	BPb	C2	BA	Amax	Amin	BA2
Erriberagoitia/Ribera													
Alta	0	99	22	30	0	12	163	489	12	477	295	59	295
Harana/Valle de Arana	0	-8	6	-1	0	0	1	3	5	0	134	27	27
Iruña Oka/Iruña de Oca	0	423	88	40	0	33	584	1.518	32	1.486	803	161	803
Iruraiz-Gauna	0	26	13	4	0	3	46	138	6	132	149	30	132
Kuartango	0	6	10	4	0	2	22	66	7	59	165	33	59
Lagrán	0	-2	4	1	0	0	3	9	5	4	132	26	26
Lantarón	0	1	22	6	0	2	31	93	14	79	350	70	79
Legutio	0	155	49	22	0	16	242	678	21	657	517	103	517
Otxandio	0	77	33	15	0	9	134	375	16	359	411	82	359
Peñacerrada-Urizaharra	0	21	8	7	0	3	39	117	6	111	148	30	111
Ribera Baja/Erribera													
Beitia	0	252	39	70	0	25	386	1.081	14	1.067	359	72	359
San Millán/Donemiliaga	0	4	17	5	0	2	28	84	10	74	242	48	74
Ubide	0	2	4	2	0	1	9	27	3	24	80	16	24
Urkabustaiz	0	156	37	48	0	17	258	722	18	704	451	90	451
Valdegovía/Gaubea	0	41	28	17	0	6	92	258	25	233	621	124	233
Vitoria-Gasteiz	0	6.699	6.090	269	0	522	13.580	29.876	2.393	27.483	59.837	11.967	27.483
Zalduondo	0	17	5	4	0	2	28	84	3	81	68	14	68
Zambrana	0	16	11	7	0	3	37	111	8	103	199	40	103
Zigoitia	0	130	45	33	0	15	223	624	20	604	488	98	488
Zuia	0	91	56	33	0	13	193	540	26	514	655	131	514
EF totala													35.276

A.	Etxebizitza nagusien beharra
A1.	Biztanleriaren aldaketaren arabera
A2.	Familiaren Batez Besteko Tamaina aldatzeagatik (FBBT)
B.	Bigarren etxebizitzaren eskaria
B1.	Etxebizitza nagusiak aldatzeagatik (EN)
B2.	Bigarren Etxebizitzaren Koefizientea aldatzeagatik (BEK)
C.	Previsión de viviendas deshabitadas
C1.	Jenderik gabeko etxebizitzaren aurreikuspena (JGE)
BIZITEGI-PREMIAK, GUZTIRA	
BP = CMT+A1+A2+B1+B2+C1	
PLANGINTZAK ESKAINI BEHARREKO GEHIENENKO BIZITEGI-AHALMENA	
BPb.	Bizitegi-premia bakanak
C2.	Berreskuratu beharreko jenderik gabeko etxebizitzak
BA.	Gehieneko bizitegi-ahalmena, mugak kontuan hartu gabe
MUGA GEHIGARRIAK	
Gehieneko bizitegi-erakunde onargarria (dauden etxebizitzaren %50)	
Beti aurreikus daitezkeen gutxieneko erakunde (dauden etxebizitzaren %10)	
Plangintzan aurreikusi beharreko gehieneko bizitegi-ahalmena (etxebizitza kopurua):	
	BA2

3.TAULA. UDALERRIZ-UDALERRI EGINIKO BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA

3.4.4. Paisaia, kultura- eta natura-ondarea eta baliabide turistikoak:

Berrikuspen horren helburu nagusia paisaia eta haren eragin-ingurunea sartzea da, paisaiaren kalitate-helburuak lortzeko eta Araba Erdialdeko Paisaiaren Katalogoan (2020ko uztailen argitaratua) garatutako paisaiaren bilakaera-adierazleak eta ekintzak ezartzeko.

Katalogoak paisaia-unitateak identifikatzen ditu, paisaia-interes bereziko eremuak bereizten ditu, eta definitzen dituen paisaiaren kalitate-helburuak aplikatu behar zaizkien eremuak espazializatzen ditu.

Beraz, paisaiaren kalitate-helburuen transposizioa egiteko honako kategoria operatibo hauek zehazten dira, eta zonakatzeko-proposamenaren atalean dagoeneko aintzat hartu dira:

1. Babes berezia: kasu honetan, ukitutako eremuek dituzten balioen arabera, LAGen matrizean babes bereziko lurzorutzat har daitezke. Horrenbestez, Arabako Lautadaren iparraldeko itxitura eszenikoaren lurzoruetan, adibidez, babesa zabalduko da.
2. Azpiegitura berdea: eremu hauetan paisaia-balioek ekosistema-zerbitzuei lagunduko diete, eta, ondorioz, azpiegitura berdeari ekarpena egingo diote.
3. Turismoa eta ondarea: eremu hauetan paisaiaren balioek ingurune eraikiarekin eta haren inguruarekin zerikusia dute, bai eta horien eta naturagunearen arteko harmoniarekin ere.
4. Ingurumen-hobekuntza: zonakatzeari buruzko lanaren bidez hala definitu diren lurzoruak osatzen ditu.
5. Udal-plangintzarako jarraibideak: proposamenak, oro har, eremu konplexuen tratamenduarekin lotuta daude, elkarrekintzan baitihardute azpiegiturek, hiriguneek eta naturaguneak. Dena den, hiriko perimetroak definitzean landu dira.

Ondareari dagokionez, euskal kultura-ondarea bere osotasunean sartzea sustatzen da, baita haren toponimiaren tratamendu harmonizatua ere. Bestalde, Bultzatu 2050 Hiri Agendak kultura- eta natura-ondarea eta hiri-biodibertsitatea babesteko planak ezartzea proposatzen du, eta LPParen berrikuspenak ere helburu horiek izango ditu.

Beraz, paisaiaren eta ondarearen arloan planteatzen diren ahaleginak honako hauetara bideratuta daude:

1. Kultura-ondarearen identifikazioa eta inbentarioa, materiala zein ez-materiala
2. Interes Kultureko Ondasunaren figuraz haragoko babes-zonak eta -planak mugatzea
3. Eraikitako ondarea birgaitzea
4. Ekimen turistikoetara eta jolas-erabileretara bideratutako araudiak arautzea

3.4.5. Baliabideen kudeaketa jasangarria: 3E2030

LPPk jorratzen dituen baliabideen kudeaketa jasangarria Energiaren Euskal Estrategiatik abiatzen da, eta, horrela, proposamenak estrategia horrek dituen helburuak betetzeko energia berriztagarria ekoizteko beharrezko lurzoruaren azalera kalkulatu du. Hala, 3E2030k esan nahi du energiaren kontsumoa murriztuko dela ehuneko hauetan:

- Orokorra = -% 16
- Etxebizitzak = -% 13
- Zerbitzuak = -% 22
- Garraioa = -% 18

planteatzeko dituen LPSa indarrean jartzen denean betearazlea izateari kalterik egin gabe. Nolanahi ere, LPSak barne hartuko dituen EAEko hausnarketa-eskalarari buruzko gogoetei autokontsumoa eta energia-eraginkortasunaren eta -soiltasunaren hobekuntza sustatzeko komenigarritasuna gehitzen zaie.

- **Ekonomia zirkularra:** 2030erako Euskadiko Ekonomia Zirkularren Estrategia, Foru Aldundiaren plangintza sektorialarekin batera, erreferentzia da arlo horretako etorkizuneko ekintzetarako; Ekonomia Zirkularren Estrategiak helburu hauek ezartzen ditu: produktibitate materiala eta material zirkularren erabilera-tasa % 30 handitzea, eta BPGd-ren araberrako hondakinen sorkuntza-tasa % 30 murriztea.

2017-2030 aldirako Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana erreferentzia-esparrua da arlo horretan, eta helburu hauek ditu, besteak beste: hiri-hondakinak kudeatzeko ereduaren koordinazioa eta integrazioa hobetzea, 2030ean sortutako hondakinen pisua % 15etik gora murriztea 2016ko balioarekin alderatuta, edo berezita biltzen diren zatikietan ez-propioen eta arriskutsuen presentzia etengabe eta pixkanaka murriztea.

Programatutako ekintzen artean, LPPrako garrantzitsuenak sistemen partzuergoko kudeaketa hobetzeari buruzkoak (Arabako hiri-hondakinak koordinatzeko organo batekin) eta azpiegiturei buruzkoak dira.

- **Lurzorua baliabide gisa:** LPPk lurzorua birziklatu daitekeen baliabide gisa aitortzen du, hiri birgaitzeko, berroneratzeko eta berritzeko eragiketen bidez, eta kutsatzaileen presentziak baldintza ditzake eragiketa horiek. Horregatik, hiri-habitatari dagokionez ezarritako planteamenduak argi eta garbi egiten du lurzoruaren kontsumoari eusteko apustua, kontuan hartuta indarreko plangintzan stock handia dagoela eta eskariaren hazkunde mugatua aurreikusten dela.

3.4.6. Mugikortasun jasangarria sustatu eta garatzea: LAGen proposamenak txertatzea.

Araba Erdialdeko LPPak sustatuko duen lurralde-eredu berria bat etorriko da gainerako plangintza sektorialekin, egungo mugikortasun-sistema eraldatzen lagunduko duten garraibide ez-motorizatuak eta garraio publikoa sustatzeko eta bultzatzeko. Aldaketa hori Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren Eremu Funtzionalan gauzatzeko, garraibide jasangarriak sustatzearekin lotura zuzena duten jarduketak lehenetsi beharko dira, hala nola:

- Txirrindularien eta oinezkoen ibilbideak garatzea eta sartzea.
- Garraio publikoa sustatzea.
- Ibilgailu pribatuari lotutako mugikortasuna murriztea.
- Garraio publikoko sistemetarako erreserbatutako plataformak garatzea.
- Nodo intermodalak garatzea egungo geralekuetan eta garraio publikoko geltokietan, garraio-modu jasangarri eta/edo ez-motorizatuetara aldatzeko.


Proposamenaren helburu orokorra ekosistema bat sustatzea da, mugikortasunaren piramidean alderantzizkatzen lagunduko duena, garraio publikoarekiko intermodalitatea sustatuz eta motorrik gabeko garraibideen kuota modala handituz. Eta, hori lortzeko, LPPk nodo intermodalak sortzea bultzatuko du lehendik dagoen garraio publikoaren geldialdi nagusietan.

3. Karbonoaren balantzean proposamenen intzidentzia kalkulatzea, kontsumo basala ezartzen bada.
4. Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako konponbideak sustatuko dira. Horrez gain, ekosistemak berroneratu eta naturalduko dira lurraldearen erresilientzia mantentzeko.
5. Hiriko eta hiri-inguruko berdeguneen artean konexioa bultzatzea eta ibai-ekosistemak txertatzea hiri-eremuetan bero-irlen ondorioak gutxitzeko eta klima-aldaketaren ondorioekiko erresilientzian laguntzeko.
6. Nekazaritza sektorea egokitzen laguntzea.

3.4.8. Lurraldearen gobernantza integratzaileagoa: hedapena eta parte-hartzea.

Gobernantza da Araba Erdiguneko eremu funtzionalaren ezaugarri konplexuenetakoa; izan ere, lurralde honetan hainbat elkarketa mota dituzten egitura historikoak daude oraindik ere.

Indarrean dagoen LPPak gai hau jorratzen du eta lurraldeko zatien arabera banatu du eremua, baina banaketa ez da sekula eraginkorra izan. Egun, Arabako lurraldearen gobernantzan sartuta dauden elkarteak hauek dira:



Graf. 15 ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO GOBERNANTZA, HIERARKIA-ORDENEAN

Hierarkia honen barruan, Udalbatzetako Administrazio-batzarrak dira lurraldearekiko eta haien biztanleekiko organismorik hurbilekoenak, beraz, garrantzitsua da haien autogobernua indartzeko bitartekoak ematea.

Tokiko sistemen arabera banatuta dagoen administrazio honek tokiko kudeaketa, zuzeneko harremana eta arazoaren hautemate goiztiarra ahalbidetzen du. Era berean, mantenu jarraituaren kudeaketa ahalbidetzen du eta konponbideak azkar ezartzea.

Hala, LPParen Berrikuspenak ezarri behar dituen neurriak hauek dira:

1. Fluxu metabolikoak kudeatzeko kudeaketa jasangarrirako gobernantza-estrategiak sustatzea.
2. Baliabide Metabolikoen Zentroa sortzea, Arabako Foru Aldundiaren mende, lotutako autosufizientziaren kudeaketaz arduratzeko.
3. Administrazio publikoen arteko koordinazioa ahalbidetzea.

Lurraldearen gobernantza-hierarkia bera, elkarrizketatutako eragileak eta lurralde-mahaietako parte hartzea kontuan hartuta, eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8.1.B artikuluan ezarritakoa betez, eraginpeko administrazio publikoen eta herritar interesdunen zerrenda hau aurkeztu da:

- **Administrazio publikoak:**
 - Estatuko Administrazio Orokorra
 - Eusko Jaurlaritzaz
 - Segurtasun Saila
 - Lan eta Enplegu Saila
 - Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
 - Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
 - Ekonomia eta Ogasun Saila
 - Hezkuntza Saila
 - Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
 - Osasun Saila
 - Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
 - Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
 - Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
 - Basquetour
 - Sprilur
 - Hazi
 - IHOBE
 - Neiker
 - Arabako Foru Aldundiaz
 - Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronka Saila
 - Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazio Saila
 - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
 - Lurralde Oreka Saila
 - Bide Azpiegiturak eta Mugikortasun Saila
 - Gizarte Politika Saila
 - Nekazaritza Saila
 - Kultura eta Kirol Saila
 - Ingurumena eta Hirigintza Saila
 - Araba Garapen Agentzia
 - Bizkaiko Foru Aldundiaz
 - Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila
 - Ekonomia Sustatzeko Saila
 - Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
 - Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila
 - Kuadrillak (5): Arabako Mendialdeko Kuadrilla, Arabako Lautadako Kuadrilla, Añanako edo Arabako Haranak Kuadrilla, Gorbeialdeako Kuadrilla, Gasteizko Kuadrilla.
 - Udalerrriak (32): Agurain/Salvatierra, Alegria-Dulantzi, Añana, Armiñon, Arraia-Maeztu, Arratzua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Campezo/Kanpezu, Elburgo/Burgelu, Iruña Oka/ Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Kuartango, Lagran, Lantaron, Legutio, Peñacerrada/Urizaharra, Ribera Alta/Erriberagoitia, Ribera Baja/Erriberabeitia, San Millán/Donemiliaga, Urkabustaiz, Valdegovía/Gaubea, Valle de Arana/Harana, Vitoria-Gasteiz,

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Zalduondo, Zanbrana, Zigoitia eta Zuiako arabako udalerrriak, eta Otxandio eta Ubide Bizkaiko udalerrriak.

- Administrazio Batzarrak (298)
- Gasteizko Udala
 - CEA
 - GILSA
 - CTV
 - Ekonomia Sustapena
 - Ensanche 21 Zabalgunea
- Beste erakunde batzuk/publiko interesduna:
 - AKE
 - UAGA
 - EHNE
 - Ekologistak Martxan
 - Arabako Parke Teknologikoa

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

- Arabako lurralde-antolamenduan eragin handia duen esparru arautzaile berrira egokitzea. Horien artean nabarmentzen da, besteak beste, urriaren 2ko 2/2014 Legea, 2/2006 Legea, Lurzoruaren eta Urbanismoaren ingurukoa, aldatzen duena.
- Araba Erdialdeko eremu funtzionalari eragiten dioten Lurralde Plan Sektorialean ezartzen diren xedapen berriak eguneratu eta sartu behar dira, hala nola Nekazaritza eta Basozaintzako LPSa edo Arabako Lurralde Historikoko Bidegorrien eta Ibilbide Berdeen LPSa.
- LPParen berrikuspenari lehentasuna ematen dioten lurraldeko prozesuen garapena:
 - Arabako ekonomiaren oinarria zentralizatzea honako sektore hauetan; administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean, merkataritzan-garraioan-ostalaritzan eta industrian.
 - Despopulazioa bai eskala erantsian. bai landa-eremuetan eta hiriguneetan.
 - Biztanleen zahartzea, bai Vitoria-Gasteizen, bai landa-eremuetan.
 - Hiriaren eta eskualdearen arteko banaketa sakona da eta horrek lurraldea zatitzen du.
 - Meatzaritzako ustiaketak eragindako ondorioak.
 - Biogaitasunak gainezka egitea eta ingurunean dauden berotegi efektuko gasek, nitratoek eta fosfatoek, gehieneko mugak gainditzea, nekazaritzako metabolismo intentsiboaren eta industrializazioaren eraginez.
 - Trebiñuk sortutako banaketa.

Energiaren aldetik, sektoreko egun egiten den kontsumoa hau da:

	Kontsumoa - Egungo erregimena (ktep)
Industria	271,9
Etxebizitzak	81,3
Zerbitzuak	60,3
Lehen sektorea	12,6
Garraioa	378,2
Guztira	804,3

4.TAULA. EGUNGO KONTSUMO ENERGETIKOA, SEKTOREKA.

4.2. 1. aukera

Aukera honek egungo kontsumoak hartuko litezke kontuan, 0 aukeran ezartzen den moduan, baina kasu honetan, beharrak energia berriztagarriekin asetzea izango litzateke asmoa. Modu horretan, energia berriztagarriekin gaur egun Eremu Funtzionalan sortutako ktep-ak kontuan hartuta, beste 746 ktep sortu beharko lirateke, eta bihurtze-faktorea (112 kWh/urte m²) aplikatuz gero, energia fotovoltaikorako 7.758 hektarea beharko lirateke.

Gainerako zehaztapenak proposatutako ereduaren berdinak izango lirateke.

5. Beste planekin duen erlazioa

Jarraian, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren LPPren garapenean sinergiak eta ingurumen-ondorio metagarriak sortzeko eragina izan dezaketen plan eta programa guztien zerrenda egiten da. Batez ere, LPPren etorkizuneko garapenean eragina izan dezaketen udalaz gaindiko planen eta beste plan, estrategia eta abarren helburuek antolamendu-, kategorizazio- eta zonakatzehelburuak eta -proposamenak aurkezten dituzten aztertuko da, etorkizuneko LPPan inplikaturatuta.

Lehenik eta behin, udalaz gaindiko planak eta dokumentuak aurkezten dira, Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetatik hasita, horiek baitira hierarkikoki lurralde-planen (partzialak eta sektorialak) gaineratik daudenak. Bigarrenik, estrategiak eta programak aurkezten dira, eta, azken buruan, beste plan eta dokumentu batzuk garatzen dira, lurraldea antolatzen ez dutenak, baina LPPren berrikuspenean eragina duten gaiak kudeatzeko jarraibideak ezartzen dituztenak.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroek (LAG), uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onetsitakoek, 28/1997 Dekretuaren bidez onartutako LAGen berrikuspena dakarte, autonomia-erkidego osorako lurralde-plangintzako lehen tresna baitira.

Harrezkero, urte hauetan gai eta diziplina-ikuspegi berriak sortu dira, lurralde-plangintzan kontuan hartu beharrekoak: klima-aldaketaren erronka, hiri-berroneratzea, azpiegitura berdea, paisaia, ekonomia zirkularra edo mugikortasuna, besteak beste; parte-hartze publikoak beste dimentsio bat hartu du, gobernantza lurraldeko gobernuari gailendu zaio, eta azkenik, lurralde-adierazleen kudeaketa gizakiaren ekintza neurtzeko elementu gisa agertzen da.

Aurrekari horiekin, LAGak berrikusi ziren, lurralde- eta hirigintza-plangintzako gainerako tresnak berrikusteko erreferentzia-esparru berritua izan zitezen.

LAGak berrikusteko printzipio gidariak proposatutako lurralde-ereduaren deskribapenean zehar garatzen dira, eta honako hauek dira:

1. Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuen balioa ingurune fisikoaren antolamenduan sartzea.
2. Landa-habitata berariaz ikusaraztea lurralde-antolamenduan.
3. Hiri-sisteman eraldaketa-ardatzen figura sartzea.
4. Artifizializatutako lurzoruen erabilera optimizatzea, hiri-berroneratzea eta erabileren mistizitatea sustatuz, eta hiri-hazkundearen perimetroa ezarriz, mugarik gabeko hazkundera saihestea.
5. Jarduera ekonomiko berrietarako lurzoruen beharretarako erantzun arin eta eraginkorra sustatzea, eta funtsean, dagoen lurzoria birsortzea, berritzea eta birdentsifikatzea bultzatzea.
6. Paisaiaren kudeaketa barne hartzea, lurralde-antolamenduko tresnen bidez.
7. Baliabideen kudeaketa iraunkorren kontzeptua txertatzea: ura, subiranotasun energetikoa, ekonomia zirkularra eta autosufizientzia konektatua (lehengaien baliabideak).
8. Mugikortasun eta logistika iraunkorra sustatzea, oinezkoen eta bizikleten mugikortasunari, garraio publiko multimodalari eta garraiobideen konbinazioaren optimizazioari arreta berezia eskainiz, abiadura handiko trenaren zerbitzuak izango diren aldi baterako agertoki batean.
9. Zeharkakotzat jotzen diren gai berriak sartzea lurraldearen antolamenduan, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, euskara, klima-aldaketa, osasuna eta lurralde-erlazioa.

3. Baliabide naturalen balioa handitzea ahalbidetuko duten ekintza-ildoak ezartzea.

LPS honek II. taldeko hezeguneak bakarrik antolatzen ditu, bi motatan sailkatuta: hirigintza-plangintza bereziak babestutakoak eta LPS honek xehetasunez ordenatutakoak.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

II. eta III. taldeko hezeguneak Babes Bereziko ingurune fisikoaren antolamendu-kategoriaren barruan sartzen dira, eta gainera, LPP honek proposatzen duen azpiegitura berdearen parte dira. Era berean, LPSak ingurumen-hobekuntza gisa proposatutako eremuak Ingurumen Hobekuntza kategoriaren barruan jaso dira LPP berriaren barruan.

Jasotako guztiagatik, berrikuspen honek LPS honen jarraibideak betetzen ditu, eta LPPren berrikuspenak ez du horren gaineko gorabehera negatiborik izango.

EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSa

Irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartua, oinarrizko dokumentu globalizatzailea eta dinamikoa da. Batetik, nekazaritzako eta basogintzako erabilerak planifikatzera eta kudeatzera bideratutako jarduerak iradoki eta bideratzen ditu, lurraldearen plangintza globaleko esparru batean bilduta, eta bestetik, nekazaritza-sektorearen interesak defendatzen ditu beste erabilera mota batzuen aurrean.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

LPSaren araudiaren 4. artikulua plan hau Lurralde Plan Partzialekin koordinatzeko modua ezartzen du, honela:

1. Behin betiko onartutako LPPak LPS honen gainetik egongo dira, indarrean dagoen lurralde-antolamenduari buruzko legeriak ezarritakoaren arabera.
2. Izapidetzen ari diren LPPek Nekazaritza eta Basogintzaren LPSeko xedapenak jaso beharko dituzte, Plan honetako Balio Estrategiko Handiko eremuei buruzkoak, bai eta Onura Publikoko Mendien eta Mendi Babesleen baldintzatzaile gainjarria ere.
3. Behin betiko onartutako LPPen etorkizuneko aldaketek eta berrikuspenek kontuan hartu beharko dituzte Nekazaritza eta Basogintzaren LPSeko xedapenak, balio estrategiko handiko eremuei, onura publikoko mendiei eta mendi babesleei buruzkoak.

Hori guztia kontuan hartu da, eta LPPak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Basogintzako Baliabideak Babesteko Lurzorua kategorizatzeke LPSk egiten duen zonifikazioa jaso du. Beraz, Berrikuspena bat dator Nekazaritza eta Basogintzaren LPS honen helburuekin. LPS honen nekazaritza-baliabideen kontserbazio-helburuak indartzeko, LPParen berrikuspenak nekazaritzako eta abeltzaintzako korridore ekologikoak zehaztu ditu, balio agrologiko handia duten eremuen kontserbazioa eta garrantzia indartzen dutenak.

Euskadiko Energia Berriztagarrien LPSa

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren bidez onartu zen hasiera batean LPS, eta EAEn jasangarritasun energetikoa lortzeko oinarrizko tresnetako bat da.

Bere oinarrizko helburuetako bat mundu, Europa, estatu eta autonomia mailako estrategia eta planetan ezarritako helburuekin lerrokatzea da, energia berriztagarrien garapena sustatuz, energia berriztagarriaren eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburu eta jomuga guzti-guztiak lortzen laguntzeko.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Energia Berriztagarrien Lurraldearen Arloko Plan hipotetiko baten mende ez dagoen arauketa bat kontuan hartzeko helburuarekin, Araudiak II. eranskin bat du, eta hari helarazten zaizkio LAP behin betiko onartu arte indarrean egongo diren gaiak. Bien bitartean, 25. artikulua, Arlo Funtzionalerako irizpide espezifikoak eta arloko orientabideak jasotzen dituena, da indarrean jarraituko duena LPSaren behin betiko onarpenetik harago.

LPPren berrikuspenak ez ditu jasotzen LPSean hautatutako kokapen-eremuak, baina lehentasunezko beste kokapen-eremu batzuk proposatzen ditu energia fotovoltaikoko instalazioak ezartzeko eta dauden parke eolikoak berrindartzeko.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta LPPren berrikuspena LPSaren helburuekin bat datorrela kontuan hartuta, LPSren berrikuspenak ez du eragin negatiborik izango.

Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeko EAeko LPSa

Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeko EAeko LPSa behin betiko onartu zen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez. Hauek dira Planaren helburuak:

- Lurralde antolamenduko ereduaren sektoreka egindako identifikazioa, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren hirigintza-erregulazioari dagokionez.
- Koordinazio-tresna bat ezartzea lurralde-plan partzialak egiteko prozesurako.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoria sortzeko eragiketa publikoak programatzeko irizpide orokor batzuen enuntziatua.
- Merkataritza-gune handien lurralde-antolamendua sistematizatzea.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

LPSean adierazitakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko azpiarea eta Langraizko korridorea jarduera logistikoko eremuak kokatzeko eremu estrategikoaren kategorian sartzen dira. Korridore osoa kontuan hartuz gero, Berantevillatik, Iruña Okatik eta Vitoria-Gasteiztik igaroz, Lautadaren ekialdereneko zatiraino, hainbat dira LPSak definitzen dituen jarduera ekonomikoak garatzeko lehentasunezko eremuak. Era berean, Arabako Haranetako (Gesaltza Añana, Erriberagoitia) eta Arabako Mendialdeko (Arraia-Maetzua, Kanpezu) kuadrilletako udalerrri batzuetan jarduera ekonomiko berriak ezartzeko sustapen-eremuak garatzeko beharra azpimarratzen du Planak, biztanleriaren atzerakada eta gazteentzako aukerarik eza ezaugarri dituzten eskualdeak dinamizatzeko helburuarekin.

Abenduaren 28ko 277/2004 Dekretuaren bidez behin betiko onartutako Araba Erdialdeko LPPa 145/2018 Dekretuaren bidez aldatu zen 2018an, hain zuzen ere Jundiz-Billodako Terminal Logistiko Intermodala eraikitzeko, LPS horrek mugatutako lurralde-eremuan. LPSak Alegria-Dulantziko eremuan planteatzen duen garapen-eremua izan ezik, gainerako eremuetarako hiri-hazkundearen perimetroaren figura garatu da, LAGek lurralde-sakabanatzea saihesteko espazio gisa planteatzen dutena, jada artifizializatutako lurzoruaren erabilera lehenetsiz eta hiri-berroneratzea eta erabileren dibertsitatea sustatuz.

Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideen eta ibilbide berdeen LPSa

Maiatzaren 24ko 130/2019 Foru Aginduaren bidez onartutako Lurralde Plan Sektorial honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan bizikleta-ibilbide berriak sortzea, 1.000 km baino gehiago dituen egungo Ibilbide Berdeen sarearekin bat egiteko. Bizikleta-bideen Foru Sarea eta Arabako Ibilbide Berdeen Sarea azpiegituren hiriarteko sareetan integratu nahi ditu, horrela, motordun

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

ez diren alternatibak garatu ahal izateko paisaia-, historia-, kultura- eta natura-balioa duten sektoreetara bisitak sustatzen diren bitartean.

Ingurune naturalean ez esku hartzeko, LPSak bide zaharrak, trenbideak eta erabiltzen ez diren beste azpiegitura batzuk mantendu, berreskuratu eta zaharberritu nahi ditu.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

LPPk Ibilbide Berdeen egungo sarea, Foru Aldundiko Bizikleta Bideen Sarea eta Arabako Ibilbide Berdeen Sarea bildu ditu, baita bizikleta-ibilbide berriak sortzeko proposamena ere.

Beraz, Berrikuspena bat dator LPS honen helburuekin, eta LPPren Berrikuspenak ez du horren gaineko gorabehera negatiborik izango.

EAEko Trenbide Sarearen LPSa

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Plan Sektorialak, otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartuak, EAEko trenbide-azpiegiturak antolatzea du helburu, eta, horretarako, plan horretatik eratortzen diren jarduketa guztiak integratu eta koordinatu nahi ditu.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Planaren berrikuspena bat dator Trenbide Sarearen LPSeko estrategiekin, eta bertan garatutako lurralde-antolamenduari buruzko xedapenak jasotzen ditu.

EAEko Energia Eolikoaren LPSa

Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialaren xedea da baliabide hori aprobetxatzeko egokienak diren ingurumen-kokaleku eolikoak identifikatzea, hautatzea eta integratzea. Horrela, ezarritako energia-ekoizpenaren helburuak lortu nahi ditu.

Maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez onartu zen, eta Arabaren kasuan, honako kokaleku hauek hautatzen ditu: Kolometa, Elgea-Urkillia, Arkamo, Badaia, Iturrietako mendiak eta Alda-Arlabako gurutzia.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Planaren berrikuspena Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurraldearen Plan Sektorialaren behin betiko onepenen zain geratzen da.

Arabako Errepideen Plan Integrala

Azaroaren 23ko 30/1998 Foru Arauak onetsia, Arabako errepide guztietan sartu beharreko xedapenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak ezartzea du xede. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorren aurreikuspenak jaso nahi ditu, nahitaezkoa eta loteslea den gai guztietan..

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Planaren berrikuspena bat dator Arabako Errepideen LPSeko estrategiekin, eta bertan garatutako lurralde-antolamenduari buruzko xedapenak jasotzen ditu.

EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategia

Estrategia hori Eusko Jaurlaritzaren esku dago natura-ingurunearen premiarik larrienei aurre egin ahal izateko; hain zuzen ere, arriskuan eta galtzeko arriskuan dauden fauna- eta flora-

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Dokumentu honetan planteatutakoaren bidez, Arabak atmosferaren batez besteko tenperatura bi gradutik behera mugatzeko helburu orokorra lortzen lagundu nahi du, eta aldi berean, klima-aldaketak Lurralde Historikoan tokiko mailan eragin ditzakeen inpaktuak murrizteko prestatzen ari da. Horrenbestez, estrategiak Arabako klima-aldaketaren ibilbide-orria ezarriko du, eta lan-esparrua ezarriko du tokiko ekintza babesteko eta sektore pribatua inplikatzeko.

Helburuak bi bloke handitan banatzen dira: arintzea eta egokitzea. Etorkizunean berrikusi ahal izango dira, nazioarteko eta Europako testuinguruaren bilakaera kontuan hartuta, bai eta sektorekakoa ere.

- 1. helburua: Arintzea – Arabako Lurralde Historikoa karbono-neutroa izatea 2050erako, isuriak murriztuz eta lurraldeko karbono-hustubideak indartuz.
- 2. helburua: Egokitzapena – Arabako Lurralde Historikoa erresilientea izatea, klima-aldaketaren arriskuak murriztuko dituen ingurune eta lurralde-plangintza baten, larrialdi-sistema indartu baten eta biztanleriaren eta sektore ekonomikoaren trebakuntzaren bidez.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator estrategia honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.

Euskadiko Energia Estrategia 2030 (3E-2030)

Europar Batasunak 2030erako dituen energia- eta klima-helburuekin bat etorritik, euskal energia-estrategiak honako helburu hauek ditu:

1. 2016-2030 bitartean 1.250.000 tep urteko energia primarioa aurreztekoa, hau da, 2030ean % 17 aurreztekoa.
2. Energia berriztagarrien erabilera % 126 sustatzea, azken kontsumoan berriztagarrien % 21eko kuota lortzeko.
3. Euskal administrazio publikoaren konpromezu eredugarria sustatzea, 10 urtetan instalazioetan energia-kontsumoa % 25 murrizteko.
4. 2030. urtean petrolioaren kontsumoa 790.000 tep murriztea, hau da, joera-egoerarekiko % 26.
5. Kogenerazioaren eta berriztagarrien partaidetza handitzea elektrizitatea sortzeko, 2030ean % 40ra irits dadin.
6. Energiaren sektoreko euskal enpresen eta eragile zientifiko-teknologikoen sarearen lehiakortasuna sustatzea maila globalean.
7. Klima-aldaketa arintzen laguntzea, energia-politikako neurrien ondorioz 3 Mt CO₂ murriztuz.

Gainera, estrategia horrek gomendatzen du, energia-proiektuetan, ahal den neurrian balio agrologiko handiko lurzoruei eragitea saihestea, instalazio fotovoltaikoak estalkien gainean jartzea ingurune urbanizatuetan modu banatuan, eta landa-lurzorua erabiliz gero, produktibitate txikiko eta % 5etik beherako maldako lursailak erabiltzea lehentasunez.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator estrategia honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.

Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

- 2030. urtean, Espainiako ekonomia osoaren berotegi-efektuko gasen emisioak gutxienez % 23 murriztea, 1990. urtearekin alderatuta.
- 2030. urtean, jatorri berriztagarriko energiak gutxienez % 42ko azken energia-kontsumoan sartzea.
- 2030ean, gutxienez % 74ko sortze-sistema elektrikoa lortzea, jatorri berriztagarriko energiatatik abiatuta.
- Energia-eraginkortasuna hobetzea, lehen mailako energia-kontsumoa gutxienez % 39,5 murriztuz, Erkidegoko araudiaren arabeko oinarritzko ildoari dagokionez.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator Lege honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.

4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoarena

Lege honen xedea da, energia-politikaren orientazio orokorrarekin bat etorriz, jasangarritasun energetikoaren arau-zutabeak ezartzea EAEko administrazio publikoen eta sektore pribatuaren esparruetan, batzuek eta besteek bete behar dituzten oinarritzko betebeharrak antolatuz. Betebehar horiek, funtsean, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko eta ezartzeko neurriak bultzatzera bideratuta daude.

Helburu guztien artean, honako hauek nabarmentzen dira: energiaren erabileraren eraginkortasuna bultzatzea eta aurreztea sustatzea, energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, jatorri fosil eta nuklearreko energiaren ekoizpena pixkanaka bereiztea kontsumo nulua lortu arte, mugikortasun arrazionalagoa eta iraunkorragoa sustatzea eta sustatzea, edo berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator Lege honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.

Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua (EKPNI) 2021-2030

Europar Batasunaren eskaerari emandako erantzuna da, estatu kide bakoitzak bere EKPNIa egin dezan, eta horrela, baterako betetze-maila zehaztu eta desbideratzeak zuzentzeko jarduerak ezarri ahal izan ditzan.

Espainiaren kasuan, berotegi-efektuko gasen emisioak % 23 murriztea du helburu EKPNIk, 1990. urtearekin alderatuta, 7/2021 Legeak ere zehazten duen bezala, eta aurreikusitako gainerako neurriek ahalbidetuko dute lege berak hartzen dituen nazioarteko konpromisoak lortzea.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator Lege honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.

Euskadiko Natura 2000 sarerako Lehentasuneko Ekintza-Esparrua (LEE)

Lehentasuneko Ekintza Esparruak (LEE) urte anitzeko tresna estrategikoak dira, eta Natura 2000 sare paneuroparra eta horri lotutako azpiegitura berdeak ezartzeko beharrezkoak diren neurrien ikuspegi orokorra ematea dute helburu, neurri horietarako finantza-beharrak zehaztuz eta EBko programa eta funtsekin lotuz. Natura 2000 Sarearen oinarri den Habitat Zuzentzarauaren helburuekin bat etorriz, LEEetan identifikatu beharreko neurriek, nagusiki,

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

habitat naturalak eta garrantzi komunitarioko espezieak kontserbatu eta lehengoratzeko helburua izan behar dute, ekonomia-, gizarte- eta kultura-berezitasunak eta eskualdeko eta tokiko ezaugarriak kontuan hartuta.

Natura 2000 Sarearen kudeaketaren zuzeneko arduradunak estatu kideak badira ere, Europako Batzordeak zeregin garrantzitsua du estatu kide bakoitzak Batasunaren intereseko lekuei buruz egindako proposamenak baliozkotzeko.

Hala ere, gure banaketa administratiboagatik, autonomia-erkidegoek dituzte lurraldea kudeatzeko eskumenak eta erantzukizuna, eta beraz, baita Natura 2000 sarea ere.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator Lege honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.

Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen aplikazio-esparruan dauden hondakin guztiei aplika dakieke, baldin eta euskal lurraldean sortzen badira edo autonomia-erkidegotik kanpo sortzen badira, baina EAEn kokatutako enpresen bidez kudeatzen badira.

Planaren helburu estrategikoak honako hauek dira:

- Prebentzioa: 2030erako, BPGren unitateko hondakin guztien sorrera-tasa % 30 murriztea 2016aren aldean, eta % 15 sorkuntza absolutuan 2010aren aldean.
- Gaikako bilketa eta bereizketa: 2030ean jatorrian bereizitako hondakinen % 85 lortzea.
- Balorizazioa: 2030erako bigarren mailako baliabide bihurtutako hondakinen % 85 lortzea, balorizazio energetikoa % 15 baino gutxiagora mugatuz.
- Deuseztapena murriztea: hondakinen kudeaketa murriztea, 2030erako sortutako hondakinen % 15 baino gutxiago deuseztatuz.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator Lege honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.

Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Plana

Arabako Foru Aldundiak egin du, eta jarraipena eman dio Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko aurreko Planari (2006-2016). Printzipio gidariak Europako arauditik datoz, eta Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiak eta plangintzak onartu eta garatu dituzte.

Plan honen helburu estrategikoen artean daude zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea, 2030ean ekoiztutako hiri-hondakinen pisua % 15etik gora murriztea, inpropioen presentzia etengabe eta progresiboki murriztea, berrerabiltzeko prestaketa handitzea, birziklatze-tasa % 60ra arte handitzea 2030ean, zabortegean utzitako udal-hondakinen kopurua % 15era murriztea, sistemaren iraunkortasun ekonomikoa ziurtatzea, ingurumenaren eta osasunaren gaineko inpaktua murriztea, eta gizarte-iraunkortasunari laguntzea.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator Lege honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.

Arabako Lurralde Historikoko Azpiegitura Berdaren Plana (ALHABP)

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuak sustatu eta 2021eko azaroan aurkeztu zuen plan honen xedea da helburuak ezartzea, irizpideak eta orientabideak zehaztea, bai eta jarduera-ildoak zehaztea ere, Arabaren lurralde-koherentzia ikuspegi ekologiko batetik bermatzeko aukera emango duten leheneratze-ekintzekin, baldintza egokiak sortuz gure lurraldeko naturaguneen eta inguruko lurraldeetakoek eta ekosistema-zerbitzuen funtzionaltasunaren arteko konektibitatea hobetzeko.

Planteamendu horren bidez, azpiegitura berdeko sare ekologiko bat bultzatu nahi da, lurraldearen erresilientzia-baldintzak hobetzeko eta klima-aldaketara egokitzeko, prozesu ekologikoek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko, eta beraz, lurraldearen biodibertsitatea epe luzera kontserbatzeko eta hobetzeko.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator Lege honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.


Ebroko Plan Hidrologikoa eta Uholde Arriskua Kudeaketa Plana

2016ko urtarrilaren 20an jarri zen indarrean gaur egun indarrean dagoen Plan Hidrologikoa. Plangintza hidrologikoaren helburu nagusia da demarkazioko ur-masen egoera ona eta babes egokia lortzea, ur-eskaerak asetzea eta eskualde- eta sektore-garapenaren oreka eta harmonizazioa lortzea.

Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana funtsezko dokumentua da ibaien ur-goraldiak eta kostaldeko ekaitzak kudeatzeko. Administrazio guztientzat eta, oro har, gizartearentzat erreferentziatzeko plana da. Uholdeei buruzko Europako Zuzentaraua ezartzeko azken fasea da. Dokumentu hau idazteko unean, 2022-2027 Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (III. fasea) behin betiko onartzeke dago.

LPParekin aurreikus daitezkeen eraginak:

Lurralde Plana bat dator Lege honetan jasotako ingurumen-helburuekin, eta helburu horiek garatzen dituzten ildo estrategikoak eta/edo ekintzak proposatzen ditu.



Graf. 17 KLIMOGRAMA, ARKAUTE METEOROLOGIA-ESTAZIOKO DATUETAN OINARRITUTA
Iturria: Euskalmet

b. Geologia

Erliebeak eta geologiak erabat baldintzatzen dituzte eskualdeko ezaugarri fisikoak eta lurraldearenak. Topografiak eta erliebeak sortzen dituzte eremuko ezaugarri bioklimatikoak, eta Euskadi-Kantabriakoa da Eremu Funtzionalan nagusitzen dena, hego-ekialdean izan ezik, bertan Ebroko Sakonunearen erliebearen zati bat baitago.

Unitate morfoegiturazkoei dagokienez, iparraldean Euskal Mendiak nabarmentzen dira eta hegoaldean Toloño mendilerroa. Bi mugen artean dagoen Arabako Lautada deituriko sakonunea eta tarteko hainbat mendilerro eta sakonune, hala nola Urbasako Mendilerroa, Kodeseko Mendilerroa edo Obarenes mendien inguruak.

Euskal Mendiekin lotura duten euskarri geomorfologikoak Behe Kretazikoko materialek osatutako sedimentu terrigenoak dira gehienbat, besteak beste, tuparriak eta kareharriak. Arabako Lautadari dagokionez, Goi Kretazikoko tuparri-sedimentuek osatzen dute eta Zadorra eta Arakil arro hidrogafikoetan dauden Kuaternarioko material gainjarriak tartekatzen dira. Bestalde, Murgiako eremuan, ipar-mendebaldean, Keuperreko material bigunak daude, eta Goi Kretazikoko kareharrizko malkarrek inguratzen duten sakonunea sortzen da.

Mendebaldean, Badaia, Arkamo eta Arrato mendilerroek kareharriek, kareharri dolomitikoez eta Goi Kretazikoko tuparriek osatutako euskarria dute. Isurialdeak oso markatuta daude; iparraldeko zatian isurialdea malkartsua da, erdialdekoak, aldiz, topografia leunagoa du. Hala, itxura karstikoa du, lapiazekin, dolinekin eta itxitako sakonuneekin.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Eremu Funtzionaleko ekialdean Iturrieta eta Entzia mendiak daude, eta bai Goi Kretazikotik, bai itsas tertziariorik datozen sedimentu karbonatuek osatzen dituzte. Urbasako Mendilerroaren ingurua osatzen duten kalkarenitazko eta dolomiazko gailurrak nabarmentzen dira. Mendilerro horrekin batera daude Harana eta Santikurutze Kanpezuko sakonunea, Goi Kretazikoko sedimentuek eta kontinenteko Tertziarioko materialek osatua. Haiekin batera dago Lokizeko Mendilerroa, Goi Kretazikoko kareharrizko materialekin osatua, eta hegoaldera doan heinean, areagotu egiten da eduki detritikoa.

Bestalde, Toloñoko Mendilerroa azalerrate mesozoikoek, paleozoikoek eta eozenoek osatzen dute. Iparraldean, sedimentu mesozeikoak tolestuta eta apurtuta daude, eta Pliozenoaren hasieran tektonika distentsiboaren ondorioz sortu ziren hobi batzuk nabarmentzen dira.

Miranda-Trebiñuko sakonune tertziarioa Keuperreko material triasikoek osatzen dute eta Añanako Gatzagen diapiroa osatuz gainazalerraten da. Hori Arabako egiturazko unitatearen parte da Arabako Lautadarekin batera.

Halaber, Toloño Mendilerroaren mendebaldean erliebe indartsuak daude eta Kodesko Mendilerroa osatzen dute. Material kretazikoek eta batez ere karbonikoek osatzen dute mendilerroa.

Azkenik, Obarenes mendiak daude hego-ekialdean eta material karbonikoek, kalizek eta margazko materialek osatzen duten euskarria dute.

gaitasun ona dute. Bertikalak eta lubisolak tokiko eskalan tartekatuta ageri dira Araba Erdialdeko lautadetan.

- Malda handieneko eremuetan erregosol kalkarikoak ohikoak dira, kareharrizko edo karbonatututako substratu harritsuaren higadurarekin lotura gutxi duten lurzorua.

Lurrak, nekazaritzarako baliabide nagusia izateaz eta lurreko ekosistemen eta giza jardueraren euskarri izateaz gain, ongizateari eta klima-aldaketa arintzeari lotutako zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen ditu.

Lurzorua planetako karbono-hustubide nagusietako bat da, eta funtzio hori funtsezkoa da klima-aldaketa arintzeko.

Araba Erdialdean, lurzoruen batez besteko karbono organikoaren edukia EAEko gainerakoena baino txikiagoa da gaur egun (hektarea bakoitzeko 150 eta 50 tona C artean lurzoruen lehen 30 cm-etan). Hala ere, balio horiek nahiko altuak dira klima submediterraneoko epeleko nekazaritza-lurzoruetan. Karbono-estoldaren funtzioa bereziki eraginkorra da Gasteizko Mendietan eta Arkamo, Guillarte, Badaia, Elgea, Urkilla, Entziako mendilerroetan (hektareako 250 tona C-tik gorako balioak, EAEko batez bestekoa baino handiagoak).

d. Hidrologia


Paisaia moldatzen duen Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako sare hidrografikoa Ebroko Arro Hidrografikoan dago. Lautadako ibaiak laburrak eta emari gutxikoak izan ohi dira, eta haran zabalak sortu ohi dituzte, oso garatuta dauden haran-hondo eta ibai-terrazekin. Haien artean nabarmentzen da Zadorra ibaia. Eremu Funtzionaletik igarotzen da Arabako Erdigunea gurutzatuz eta haren arroa Zalla, Barrundia, Alegria, Santa Engrazi, Urkiola eta Albina erreken parte da. Ibai hauen ezaugarri nabarmenena da buruak sartuta izan ohi dituztela eta ibilbidea okerra izan ohi dela. Horixe gertatzen da Zadorrarekin Vitoria-Gasteiztik irteten denean.

Ebroren urteko batez besteko emaria 81 m^3 -koa da, eta bigarren emaririk handiena duen ibaia Zadorra da, urteko batez besteko $20,6 \text{ m}^3$ izanik. Uribarri-Ganboa eta Urrunaga urtegiak erregulatzen dute ibai hori. Baia ibaiak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du probintzia eta batez besteko emaria $6 \text{ m}^3/\text{s}$ -koa da. Ur horien kalitateari dagokionez, desberdintasunak daude. Zadorra ibaiaren kasuan, urek kalitate handia dute Vitoria-Gasteizera heltzen den arte. Bertan nabarmen okertzen da kalitatea.

Halaber, Eremu Funtzionalak hainbat urtegi ditu, hala nola Urrunagako Santa Engrazi eta Urkiola erreketako urak jasotzen dituena. Hala ere, Uribarri urtegiak urak ere jasotzen ditu, biak lur azpiko akueduktu batekin lotuta baitaude. Urtegi honen helburu nagusia Bilbo hornitzea da eta Barazarreko zentrolean energia hidroelektrikoa sortzea. Zentrala Arratia ibaian dago, Nerbioi ibaiaren adarrean. Urak kutsatzeko arrisku handia du Otxandioko metalgintzako industrien ondorioz.

Bestalde, Uribarriko urtegiak Zadorratik eta Barrundiatik jasotzen ditu urak, baita Argazubi, Añua eta Alegria erreken emariaren zati batetik ere. Urtegi honen ardura da Arabako eta Bizkaiko udalerrak hornitzea, eta Bizkaiko udalerrietara ura eramateko Urrunagako urtegitik igaro behar du. Erabilera hidroelektrikoa ere badu, eta Urrunagako urtegiaren modura, urak kutsatzeko arrisku altua du, inguruan dagoen industria-jardueraren ondorioz.

Lur azpiko urei dagokienez, nabarmendu behar da akuiferorik zaugarrienak kareharrizko mendiguneetakoak edo Vitoria-Gasteizko Unitate Hidroelektrikokoak direla.



Graf. 19 ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO MAPA HIDROLOGIKOA

e. Landaredia


Aurretik aipatu dugun klima desberdinaren ondorioz, paisaia oso desberdinak daude Araba Erdiguneko Eremu Funtzionalan.

Alde batetik, Arabako Lautada dago, Vitoria-Gasteiz inguratzen duen eremua. Landarediaren artean, harizti eutrofiko azpiatlantikoa da nagusi. Ipar-ekialdean, Aratz edo Urkilla mendiegalen gertuko eremuan sastrakak eta zuhaitziko karraskak daude, baita erkametzak edo haritz ilaundura ere. Aldiz, Urbasa-Entzia mendilerrotik gertu pagadiak eta urkidiak daude, izaera askoz ozeanikoagoa eta menditarra dutenak. Eta, hegoalderantz, erkamezti submediterraniarra dago karraskadi menditar lehorrarekin batera.

Nabarmentzekoa da pagadien estalitako azalera handia Toloñoko Mendilerroan, Kodesko mendilerroan, Andia mendilerroan, Gasteizko mendietan, Iturrieta mendietan, Urkilla mendilerroko hegaletan eta Elgeako mendilerroan. Halaber, erkamezti ugari daude Gasteizko eta Izkizeko mendietan; eta mendebaldeko eremua artadi eta garrigek hartzen dute, nahiz eta Kanpezu eta Kodesko haranetan ere badiren. Iparraldean ere hariztiak aurki daitezke, baina gutxiago, baita pinudi espontaneoak ere.

Erriberako landarediari dagokionez, Zadorra ibaiarekin lotuta dagoena aurki dezakegu eta hein handi batean jatorri naturala eta egitura konplexua du. Haltzak (*Alnus glutinosa*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*), zumeak eta makalak dira nagusi, besteak beste. Hala ere, erriberako landaredia mota hau urritu egin da gizakien jardueraren ondorioz; izan ere, kasu batzuetan, lursailak drainatu dira larreak eta laborantzak bihurtzeko.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-



Graf. 20 ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LANDAREDI-MAPA

f. Fauna


Lurraldeko habitaten aberastasunak berekin dakar EAeko floraren eta faunaren taxon ezagun asko egotea, mehatxu-mailaren bat dutenak eta espezie babestuen katalogoetan sartuta daudenak barne. EAEn katalogatutako fauna ornoduneko espezieen % 89 Araban bizi dira (145 espezie), eta ia guztiak Araba Erdialdean daude.

Era berean, eremua Araban dauden mehatxatutako fauna-espezieak kudeatzeko zortzi planen aplikazio-eremuaren zati da, neurri handiagoan edo txikiagoan: hiru ugaztun (bisoi europarra, igaraba eta otsoa), bi hegazti (uhalde-enara eta Bonelliko arranoa) eta hiru arrain (kabuxa, lamprehuela eta zaparda).

6.1.2. Azpiegitura berdea

LAGek dagoeneko onesten dute Eremu Funtzionalaren zeregin nagusia Nafarroako iparraldeko eta Burgosko iparraldeko lurralde mugakideekin ekialde-mendebaldeko jarraipen ekologikoan. Jarraipen hori hiru ardatzen bidez gertatzen da: iparraldekoak Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeak banatzen ditu (Aizkorri-Aratz, Urkilla-Elgea, Zaraya, urtegien iparraldea, Gorbeia, Gibijo eta Arkamu Gorobel mendilerroa); Lautadaren hegoaldean ardatz ertaina, Arabako Ibarretan zehar murgiltzen dena (Entzia, Gasteizko mendiak, Tuioko mendilerroa, Añana, Artzena-Sobron eta Valderejo) eta hegoaldeko ardatza, Arabako Errioxarekin eta Nafarroarekin mugakidea (Kodezko mendilerroa, Kantabriako Mendilerroa eta Toloño). Zeharkako (ipar-hegoaldea) lotura gisa azpimarratu behar dira Gibijo-Arkamu eta Badaia nahiz Arratoko mendilerroak Lautadaren mendebaldean eta Izki, Eremu Funtzionalaren hego-ekialdean.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-



Graf. 21 AZPIEGITURA BERDEAREN ARDATZ NAGUSIAK EREMU FUNTZIONALEAN.

Azpiegitura berdearen sarea hurrengo elementuek egituratzen dute:

- **Ingurumen balioengatik babestutako eremuak**
Kategoria honetan Natura 2000 Sareko eremuak sartzen dira, besteak beste, zenbait HBEG (Salburua, Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa edo Arabako Mendebaleko mendilerroak) eta KBE (Entzia, Aldaiako edo Arkamu-Gibilo-Arrastiako mendiak), naturaguneen saretik datozen mugaketekin batera. Batzuetan bigarrenak bat datoz N2000Srekin, Añanako diapiroaren kasuan izan ezik. Ingurumen balioak direla eta, guztira 19 eremu babestu daude.
- **Natura-intereseko beste espazio batzuk**
Kategoria honetako eremuak ez daude eremu babestuen aurreko bi kategoriatan katalogatuta, baina azpiegituran marraztu dira, ekologia- eta ingurumen-balioa altua dutelako eta ekosistema- zerbitzuak ematen dituztelako. Horietako eremu batzuk dira Gasteizko mendietako mendebaldeko zonaldea, Badaiko eta Arratoko mendilerroak, Tuioko mendilerroa, Sobron eta Desfiladero de Angosto-ko zonaldeak, eta Aizkorri-Aratz eta Entzia mendilerroetako mendi-oinak. Gasteizko mendiei dagokienez, eta lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak eremu hori Babes Bereziko kategoriaren barruan sartzen duen arren, beharrezkotzat jotzen da egungo KBEaren babes zabalagoa, natura-intereseko eremu hori barne hartuko duena.
- **Igarobide ekologikoen sarea**
Igarobide ekologikoen sareari dagokionez, lehen azaldu den bezala, honako agiri hauek aztertu eta erreferentziatzen hartu dira: EAEko Azpiegitura Berdea (2016), Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (2019), eta Arabako Lurralde Historikoko Azpiegitura Berdearen Plana.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Agiri horien arabera, azterketa bat egin da irizpide anitzekin, eta ingurumen-irizpideak kontuan hartu dira, hala nola landaretza, aldapak, espezieen aberastasuna edo habitaten zatiketa. Modu horretan, Eremu Funtzionalean mugaketa zehatzagoak definitu dira.

Igarobide ekologikoen kasuan, besteak beste, honako hauek definitzen dira: iparraldean Gorbeia - Badaiaiko eta Arratoko mendilerroak eta Aizkorri-Aratz, Urrunaga-Uribarri urtegien sistematik igarotzen direnak; ekialdeko Gasteizko mendiak -Entzia-Izki, ekialdean; Hegoaldeko mendizarren korridoreak, hegoaldean; lurraldearen mendebaldean dauden igarobideak, Valderejo-Arkamu-Sobron-Añana-ko babestutako espazioak konektatzen dituztenak; eta Gorbeia eta Urkiolako Parke Naturalak lotzen dituen igarobidea, Otxandio-Uribeko ardatzan.

- **Sare hidrografikoa**

Sare hidrografikoa azpiegitura urdina deritzana sortzen du, eta haren balioak eta funtzioak igarobide ekologikoei pareka dakizkieke, eremuan elkar konektatzeko gaitasun handia dutelako, hauei lotutako ibaietako landaredia ere kontsideratuz. Gune horiek fauna- eta ekologia-balio altukoak dira, eta gainerako naturaguneen antzera, ekosistema-zerbitzuak ematen dituzte. Natura 2000 Sareak ibai-igarobide gehienak Kontserbazio Bereziko Eremu gisa mugatzen ditu. Kategoriatan sartzen dira, besteak beste, Zadorrako sistemaren urtegiak, eta Arakil, Baia, Barrundia, Ebro, Ega-Berron, Ihuda eta Omecillo-Tumecillo ibaiak.

Mapa

6.1.3. Babestutako naturaguneak

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Eremu Naturalen Sarearen barruan 5 natura-parke daude eta beste bat tramiteak egiten ari da (Gasteizko mendiak); Babestutako Biotopo bat eta beste bat tramiteak egiten; eta 9 zuhaitz berezi. Babestutako azaleraren 31.201 hektarea hartzen ditu, hau da, Eremu Funtzionaleko azalera osoaren % 13,4.

Natura Parke izendatu diren Arabako naturagune guztiek dagokien Baliabide Naturalen Antolamendurako Plana dute. Valderejoko Natur Parkea izan zen Eremu Funtzionaleko lehena, 1992an, gero, Gorbeiko Natur Parkea 1994an, Izikiko Natur Parkea 1998an, Urkiolakoa 2002an eta, azkenik, Aizkorri-Aratz Natur Parkea 2006an.

Halaber, lurraldean hiru RAMSAR hezegune daude eta Natura 2000 Sareari dagokionez, Kontserbazio Bereziko 23 Eremu daude, Hegaztien babeserako (horietako 4 Kontserbazio Bereziko Eremuak dira), 6 Eremu Berezi eta Garrantzia Komunitarioa duten 23 Toki, hau da, 79.936 hektarea daude babestuta, Araba Erdiguneko azalera osoaren % 34,3. Era berean, lurraldearen zati handi bat Europako "Habitat" Zuzentarauak babesten du. Era berean, Araba Erdialdeko Batasunaren intereseko 43 habitat-mota ditu (92/43/EEE Zuzentaraua). Habitat horiek, oro har, 1.000 km²-tik gorako azalera dute, hau da, EAE osoko Batasunaren intereseko habitaten azalera osoaren % 38.


EGONBIDEA. Dokumentu hau Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren espelentzat aplikatzen da eta, beraz, Espelentza eta Herri Agintariko sarbideraren 2024ko urteren 7ko Aginduraren bidez onartu behar da.

Para hacer constar que el presente Documento es el resultado de la aprobación del Plan Territorial Funcional de Araba Central, aprobado por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Araba el 7 de octubre de 2024.

EXPEDIENTE Nº 1/2024
 PLAN TERRITORIAL FUNCIONAL DE ARABA CENTRAL
 PLAN PARTIAL DEL TERRITORIO RURAL

LURRALDE PLANATZAREN ETA HIRI ERORTZAREN ZERBIKUNTZA BARRUTIA
 EL DIRECTOR DE ADMINISTRACIÓN TERRITORIAL

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-



Graf. 22 NATURA 2000 SAREAREN BANAKETA ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEAN

6.1.4. Arriskuak eta ingurumen arazoak

Uholde-arriskua

Gaur egun, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko hainbat eremuri eragiten die uholde-arriskuak. 21. grafikoan ikus daitekeenez, urak har ditzakeen eremu nagusiak Zadorra, Santa Engrazia, Baia eta Ihuda ibaien arroetan daude.


Zadorra ibaiaren arroa da, eta zehazki, ibaitik hurbil dauden lursailak, Vitoria-Gasteiz parean, uholde-arriskuak gehien kaltetutako arroa. Bere ibaiadar nagusiak gehitu behar zaizkio hiritik igarotzean: Zaia edo Alegria. Arriskua handiagoa da maiztasun handiko mehatxua delako (10 urteko uholde-xaflak 500 urtekoen ia hedadura bera du), eta ibaiaren hegoaldeko lurzoru nagusiki industrialetan mehatxuarekiko esposizio handiagoa dagoelako; horri Vitoria-Gasteizko aireportuak eta aireportuaren ekialdeko nekazaritza-partzelek hartzen dituzten lurzoruak gehitu behar zaizkio.

Uholde-arriskurako arrisku handieneko bigarren eremua Zadorra ibaiaren beheko ibilgua litzateke, Ebro ibaiaren bokaletik gertu dagoena, eta zehazki, Ihuda ibaiarekin bat egiten duena. 10 urteko uholde-lamina ere handia da, eta Arasur ingururako diseinatutako hiri-hazkunderen perimetroan sartuko litzateke.

Arrazoi horrengatik espero daitezkeen batez besteko kalte ekonomikoak 2.207.265 €/ urte dira. Garrantzi bereziko puntuei dagokienez, 11 industria-instalazio aipatzen dira (IPPCri buruzko 16/2002 Legearen I. eranskinean adierazitakoak), bai eta kultura-ondareko 6 elementu ere, eragina izan dezaketenak. Uholde-arriskua duen eremuak (T=500), halaber, interferentziak izango litzuzke Natura 2000 Sareko eremuei dagozkien ingurumen-garrantzizko eremuekin, hala nola Salburuako hezeguneetako HBBEarekin, hezegunetik hurbil dauden bi irla-basorekin eta Zadorra, Santa Engrazia, Baia eta Ihuda ibaietako KBEekin.

Baso-suteen arriskua

Arrisku meteorologiko nagusia suteak dira, Araba Erdialdean ere oso zabalduta daudenak baso-masa ugariengatik eta bertako klimaren izaera epel mediterraneizatuagatik, udako lehortealdiak ohikoak baitira. Mendi-hegalen intsolazioa, oihanpeko erregai-kantitatea eta baso-masen konposizioa ere funtsezkoak dira tokian tokiko sute-arriskua azaltzeko. Izan ere, sute-arriskua handiagoa da batez ere landaredi mediterraneoa duten baso eta sastrakadietan. Arcena, Arkamo, Badaia, Kodes, Elgea, Toloño mendilerroak, inguruko mendiak eta Gasteizko mendiak dira sute-arrisku handiena duten gunek, mapa honetan ikus daitekeen bezala:



Graf. 25 ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO SUTE-ARRISKUA


Akuiferoen kalteberatasuna

Akuiferoen kalteberatasuna lurpeko akuiferoak kargatzeko eremuen mugaketen bidez adierazten da, eta horiek kutsadurarekiko kalteberatasun-maila handia edo oso handia dute. Berrikuspene honetarako erreferentziatzat hartu dira bai urrakortasun ertain, handi eta oso handiko eremuen mugaketak, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak 1993an egindako EAeko akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maparen arabera, bai plan hidrológicoek EAerako eremu babestu gisa ezarritako mugaketak, urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren arabera.

Akuiferoen kalteberatasuna oso zabalduta dago Eremu Funtzional osoan, eta horren proportzio oso esanguratsua altua edo oso altua da. Ezinbestekoa da, beraz, kalteberatasun handia eta oso handia duten Eremu Funtzionalaren eremuak identifikatzea, eremu horietan jarduketak prebenitzeko, lurpeko ibilguetan eragina izan baitezakete.

Gainjarritako baldintzatzaile horrek, beraz, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak kokatzeko saihestu beharko liratekeen zonak mugatu behar ditu, eta horietan arreta handiz zaindu beharko lirateke nekazaritza-jarduerak. Neurri handi batean, azpiegitura berdearen mugaketarekin bat


Araba Erdialdeko Eremu Funzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-



Graf. 28 BEG-EN ISURIEN EBOLUZIOA 2005-2018 ARTEAN

Iturria: Estrategia Klima Araba 2050.

Hurrengo grafikoan sektore igorle bakoitzaren ekarpena agertzen da. Berotegi-efektuko gasen isurketen artean, eragin handiena duen sektorea Energia sektorea da, 2.570,09 kt CO₂e isuri baitira, hau da, isuri guztien % 73. Bigarrenik, azken kontsumorako EAetik inportatutako energia elektrikoari lotutako zeharkako isuriak daude (isurketa guztien % 14). Igorpen-iturri horri jarraituz, Nekazaritza sektorea da balantze osoan eragin handiena duena (isuri guztien % 5). Azkenik, Hondakinen sektorea eta Prozesu Industrialak eta Produktuen Erabilera (PIPE) sektorea egongo lirateke, bakoitzak % 4ko ekarpena eginez guztizko isurketei.



Graf. 29 SEKTORE ISURTZAILEEN KONTRIBUZIOA.

Iturria: Estrategia Klima Araba 2050.

Emaitzak aztertuta, energia sortzeko sistema garbiagoak eta eraginkorragoak erabiliko dituen energia-eredu bat planifikatzea da KLIMA ARABA 2050 Estrategiaren ildo nagusietako bat.

Energiaren sektorearen barruan, azpisektore nagusiak honako hauek dira: energia-industria, manufaktura- eta eraikuntza-industria, garraioa, beste sektore batzuk eta kontsumitutako erregaien ondoriozko isuri iheslariak. Garraioaren sektorea da gehien nabarmentzen dena, bai emisioengatik, bai goranzko bilakaeragatik.

Arabaren gehien erabiltzen den energia-iturria petrolio da, jarduera batez ere garraioa bideratuta baitago. Gas naturala dator atzetik, antzeko ekarpenarekin. Gas naturala industria-

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

sektorearen, elektrizitatearen sorkuntzaren, bizitegi-sektorearen eta zerbitzu-sektorearen artean banatzen da.

Lurraldeko jardueren azken kontsumoan erabilitako energia-iturri gehienak beste lurralde batzuetatik inportatzen dira, kontsumitutako elektrizitatea barne. 2018an, energia-iturri propioak % 5 baino ez ziren.

Lurraldean elektrizitatea sortzeari dagokionez, instalazio berriztagarriek kontsumitutako elektrizitatearen % 15 sortzen dute, eta ia guztia sistema elektrikora transferitzen da. Mugarrari Planaren arabera, Arabako berriztagarrietatik abiatutako kontsumo elektrikoa % 35era iristea aurreikusita zegoen Plana amaitzean (2020). Hala ere, 2018an ikusitako balioa aurreikusitakoa baino txikiagoa da.

Iturri propioetatik sortutako energia elektriko gordinaren sorkuntzan, energia eolikoaren bidezko elektrizitatearen ekoizpena nabarmentzen da, % 7, Badaia, Elgea-Urkilla eta Elgea parke eolikoak nabarmenduz. Baliabide hidrikoaren aprobetxamendu bidezko ekoizpen elektrikoa sorkuntzaren % 7 da. 15 minizentral hidrauliko daude identifikatuta, 15,3MW instalatuta, eta 28,8 MW-ko zentral hidrauliko bat.

Proporzio txikiagoan, eguzki-energiatik abiatuta, lurraldearen barruan sorkuntza termikoaren ekarpena dago. Era berean, lurraldean ekoiztutako bioerregaiak eta biomasa kontsumitzaileak diren sektoreetan kontsumitzen dira zuzenean: garraioan eta industrian, batez ere.

Arabako azken energia-kontsumoa 12.243.638 MWh ingurukoa izan zen 2018an (1. taula). Azpisektoreen arabera bereizketatik ondoriozta daiteke energia-kontsumo handiena duena garraio-sektorea dela (% 46), eta haren atzetik datoz industria-sektorea (% 31) eta bizitegi-sektorea (% 12).

Sector	Consumo Energético (MWh)	%
Industria	3.804.948	31%
Transporte	5.589.852	46%
Residencial	1.495.426	12%
Servicios	982.367	8%
Agricultura y pesca	120.511	1%
Sector energético	250.535	2%
Total	12.243.638	-

6.TAULA. AMAIERAKO KONTSUMO ENERGETIKOA, SEKTOREKA
Iturria Klima Araba Estrategia 2050

Garraioaren sektorearen barruan, errepideko garraioa da ekarpen handiena egiten duena, erregaien guztizko kontsumoaren % 98 baino gehiago hartzen baitu. A eta B gasolioak, gutxi gorabehera, % 85eko kontsumoa eragiten du. Azpimarratzekoa da Araba lurralde estrategikoa dela errepideko mugikortasunari dagokionez, eta horrek justifikatzen du sektore horretan erregaien kontsumoa handitzea, Lurraldeko Energia Balantzean aurkeztutako datuak salmentei buruzko datuak baitira.

Industria-sektorea da, bestalde, lurraldeko energia elektrikoaren eta gas naturalaren kontsumitzailearik handiena: guztizko kontsumoaren % 53 eta % 68.


Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) bidez beste energia-adierazle batzuek emandako informazioan oinarrituta, 2018an, 2015aren aldean, azken energia-kontsumoak eta per capita kontsumoek gora egin dutela ikus daiteke. Hazkunde horrek bilakaera proportzionalari eusten

Araba Erdialdeko Eremu Funzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

dio produkzio-sektore guztietan; beraz, ondoriozta daiteke ez dela joera-aldaketa esanguratsurik hautematen sektore bakar batean ere energiaren erabilera eraginkorragoari dagokionez. Goranzko joera horiek gorabehera, adierazle positiboak ageri dira energia-hornidurari eta energia berriztagarrien sartzeari dagokienez, kanpoko iturrien ehunekoa jaitsi egin baita guztizkoaren gainean, eta berriztagarrien ehunekoa handitu. Berriztagarrien ekarpenari dagokionez, arlo horretan aurrerapen handiena izan duten sektoreak garraioaren sektorea (bioerregaien erabilera % 87 hazi da) eta zerbitzuen sektorea (eguzki-baliabidean eta biomasan % 70eko hazkundera, batez ere) izan dira.

Klima-aldaketari egokitzea


Lurralderako dauden klima-proiekzioen arabera, datuek erakusten dute batez besteko tenperaturak eta tenperatura maximoak nabarmen igo direla lurralde historikoko eskualde guztietan. Batez besteko tenperaturari dagokionez, proiektzioen arabera, batez besteko igoerak +0,64°C izango dira epe laburrean, eta +3,23°C epe luzean, egoera ezkorrean (RCP8.5.). Minimoak zein maximoak etengabe igoko dira, eta maximoak nabarmenagoak izango dira. Tenperaturen igoera nabarmena da 35°C-tik gorako tenperatura maximoak dituzten egunen kopurua bezalako adierazleetan; izan ere, azken hogeita hamar urteetan batez beste 2 egun baino gutxiago izatetik ia 4 izatera igaro daitezke epe laburrera, 9 egun epe ertainera eta 18 egun epe luzean.



Graf. 30 BATEZBESTEKO TENPERATURAREN PROIEKZIOA XXI.MENDEAN ZE HAR

Iturria: Estrategia Klima Araba 2050

Prezipitazioen bilakaerak ziurgabetasun handiagoa erakusten du. Zantzuen arabera, batez besteko prezipitazioak pixka bat gutxitu dira eta jokabide-eredua aldatu egin da.



Graf. 31 BATEZBESTEKO PREZIPITAZIOEN PROIEKZIOA XXI.MENDEAN ZE HAR


Fuente: Estrategia Klima Araba 2050

6.1.6. Paisaia

Araba Erdiguneko Eremu Funtzionalak paisaia aberatsak eta askotarikoak ditu. Oro har, ezaugarri orokorreari erreparatu, Araba Erdiguneko Eremu Funtzionalako Paisaien Katalogoak zehazten ditu Araba Erdiguneko paisaien tipologiak. Dokumentu honek paisaia-unitate desberdinak kudeatzeko tresna bat sortu nahi du, Paisaien Europako Hitzarmenaren eta EAEko lurraldeko paisaiaren kudeaketaren eta antolamenduaren Dekretuaren (90/2014 Dekretua) arabera.

Katalogoaren arabera, Araba Erdiguneko paisaia-unitateak hiru bloketan banatzen dira:

- Lautada zabalak
- Mendi-oinarriko hegalkak eta ibarrak
- Mendilerroak eta mendiak



Graf. 33 EREMUKO PAISAIA-UNITATEAK

Iturria: Araba Erdialdeko Paisaia-Katalogoa

Kodea	Paisaia-unitatea	Azalera (km2)
01	LLANADA DE VITORIA-GASTEIZ	173,24
02	VITORIA-GASTEIZ	34,40
03	LLANADA DE ALEGRÍA-DULANTZI Y AGURAIN/SALVATIERRA	177,07
04	VALLE DEL EBRO (CONFLUENCIA CON ZADORRA Y AYUDA)	85,51
05	VALLE DE OTXANDIO	13,97
06	VALLES DE ZUIA Y URKABUSTAIZ	72,49

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berriraketa
-BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

07	VALLE DE ZIGOITIA	40,54
08	URRUNAGA Y ULLIBARRI-GANBOA	92,26
09	VALLE DE BARRUNDIA	24,97
10	VALLE DE KUARTANGO	27,51
11	CORREDOR DE LACOZMONTE	27,45
12	PIEDEMONTES DE LOS MONTES DE VITORIA	47,67
13	VALLE DE MARKINEZ Y URARTE	23,38
14	LAMINORIA	44,35
15	VALLES DEL OMECILLO Y LA MUERA	32,45
16	VALLE DE VALDEGOVÍA/GAUBEA	33,82
17	TERRAZAS DEL EBRO (SOMONTANO DE LANTARÓN, RIBERA ALTA Y RIBERA BAJA)	40,34
18	VALLES DE POBES Y ARGANZÓN	24,78
19	PEÑACERRADA-URIZAHARRA	24,25
20	VALLE DEL EGA DE BERNEDO A LAGRÁN	19,60
21	SAN ROMÁN DE CAMPEZO/DURRUMA KANPEZU, KINTANA Y URTURI	18,27
22	HARANA/VALLE DE ARANA	17,50
23	VALLE DEL EGA EN CAMPEZO/KAMPEZU	26,35
24	GORBEIA	133,91
25	ELGEAMENDI, URKILLA Y ALTZANIA	105,85
26	MONTES DE ALDAIA Y NARBAIZA	29,66
27	BADAIA, ARKAMU Y GIBILLO	212,91
28	SIERRAS DE VALDEREJO, GAUBEA/GOBÍA Y ÁRCENA	92,20
29	SIERRA DE TUYO, MONTES CANTOBLANCO Y OLVEDO, Y SIERRA DE BÓVEDA	94,44
30	DIAPIRO DE AÑANA Y MONTES DE ATALAYA, SOMO Y MONTEMAYOR	56,54
31	GASTEIZKO MENDIAK/MONTES DE VITORIA	60,78
32	KAPILDUI Y VALLE DE AZAZETA	36,72
33	BARGA DE ITURRIETA Y ENTZIA	30,17
34	MONTES DE ITURRIETA, SIERRA DE ENTZIA Y URBASA	63,28
35	SIERRA DE PORTILLA/ZABALATE Y VALLE DE ZAMBRANA	33,06
36	TOLOÑO MENDILERROA/SIERRA DE TOLOÑO	44,12
37	MONTES DE JAUDEN Y SEMENDIA	37,41
38	IZKI	75,93
39	MUELAS ENTRE MAEZTU/MAESTU Y CAMPEZO/KAMPEZU	53,14
40	SIERRA DE LOKIZ	29,55
41	SIERRA DE KODES	19,71

7. TAULA. PAISAIA-UNITATEEN AZALERA.
 Iturria: Araba Erdialdeko Paisaia-Katalogoa

Paisaien katalogoaren arabera, Araba Erdiguneko Eremu Funtzionalan azalerarik handiena hartzen duten bost unitateak hauek dira:

Badaia, Arkamu eta Gibillo

Unitate honen ezaugarria kalizazko litologia da, arroilatan dago zatituta eta basoek eta goi-ordokietako morfologia ohikoek osatzen dute paisaia. Bi isurialde ditu: bata magal malkartsuek osatua, eta bestea, leunagoek osatua. Formazio karstikoen presentzia da ezaugarri nagusia, hala nola lapiazak, kobak edo dolinak. Paisaiaren eta geografiaren funtsezko erreferentzia da. Goi-ordokietan larreak dira nagusi, aldiz, mendi-magaletan basoak daude gehien bat eta ezaugarri desberdinak dituzte mendi-magalaren arabera.

Alegria-Dulantzi eta Aguraingo lautada

Lautadaren ezaugarria nekazaritzako eta hiriguneetako eraldaketa da, eta baita azpiegituren igarobidea ere. Lautada hau nagusiki nekazaria da, Arabako Lautada osoaren modura. Lurrak oso emankorrak dira, sakonak eta ondo egituratuta daude. Paisaiak lehorreko laborantza handiak ditu, sail ureztatu zabalekin nahastuta. Ezaugarri nagusi horien artean muino txikiak ere badaude, baita nukleo tradizional eta hirigune esanguratsuak ere.

Vitoria – Gasteizko lautada

Alegria-Dulantzi eta Aguraingo lautadaren ezaugarri antzekoak dituen lautada zabala da, eta harekin batera osatzen du Arabako Lautada. Mendetan nekazaritzarako landu diren lur oparoak oso bestelakoak dira XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera Vitoria-Gasteizko hiriguneak, logistikak eta industriak izan duen eraldaketarekin, baita azpiegitura berri eta indartsuak izan dituelako ere. Unitate horrek hiria mugatzen du, eta Eratzun Berdea deiturikoak inguratzen ditu Vitoria-Gasteizko zabalguenak.

Gorbeia

Gorbeia mendilerroa Bizkaia eta Araba artean dago eta mendiko erliebe malkartsuak dira nagusi bertan. Punturik altuena Gorbeia tontorra da, 1.484 metroko altueran, eta Natur Parke gisa dago izendatuta. Paisaiaren erreferentzia da, ez soilik balio sinboliko eta kulturalarengatik, baita lurraldeko eremu oso zabal baten hondo eszenikoa delako, nahiz eta barrualdean begizko irismen baxua duten eremuak dituen, eta, beraz, hauskortasun txikiagokoak.

Elgeamendi, Urkilla y Altzania

Kareharri eta hareharrizko mendilerroen lerroa da, eta gailurrak 1.200 metrora hurbiltzen dira. Magalek aldapa handiak dituzte eta zuhaitzez estalita daude gehienbat. Eremu Funtzionala eta batez ere Arabako Lautadako iparraldeko hondoko agertokia da, eta iparraldera hedatzen den mendilerroaren parte da, Euskal Mendiak osatuz. Paisaia-unitate honen eremu batzuk Biodibertsitatearen Erreserba eta Natur Parkea dira.

6.1.7. Kultura ondarea

Arabako Kultur Ondarearen ezaugarri nagusia aberastasuna eta aniztasuna dira, gaur egungo Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalan izan diren kulturetatik eratorria. Eremu horretan, kokalekuak eta historiaurreko aztarnategiak, menhirrak eta nekropoliak eta, kronologikoki jarraituz, dorreak eta etxe gotorrak aurki ditzakegu, besteak beste.

Eremu Funtzionala ondaren inbentario osoa Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago jasota. 4.000 kultura-ondasun baino gehiago ditu, bere osotasunean babestuak izan behar direnak. Askotariko elementuen multzoa da. Horien artean, lurralde-terminoetan, Paisaiaren Katalogoak berariaz identifikatzen dituenak nabarmentzen dira, Kalitate-Helburu hauen bidez:

1. Kontzejuen eta herrixken kontserbazioa sustatzea: eremu funtzionala 307 kokaguneri eragiten die; beraz, izaera orokorra du, eta ez da berariaz adierazten proposamen-planoan, errazago irakurtzeko.
2. Balio eta hauskortasun handiko guneen ikusizko babesa sustatzea. Bost eremuri eragiten die, hiri-multzo txikiei eta ohiko dorre-tipologia duten enklabeei dagozkienak, eta horietako 4 Arabako Haranetan eta Arabako Mendietan daude. Honako hauek dira: Mendoza; Tuesta; Villanañe multzoa, Baronatarren dorrea eta Angostoko komentua; Urizaharrako Erdi Aroko hiribildua; eta Antoñana. Kasu horietan, plan bereziak egitea proposatzen da, ikusizko arren azterketatik abiatuta, turismorako eta aisialdirako ondasunak eskuratzeko antolamendua bideratzeko.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

3. Hiribilduen eta hirigune historikoen babes eta kontserbazioa sustatzea: Hemen, plan bereziak idatzi edo berrikusi behar dira, UNESCOren hiri-paisaia historikoaren gomendioaren irizpideak txertatuz: herritarren parte-hartzea, ezagutza eta plangintza hobetzea, tokiko baldintzak kontuan hartzea eta finantza-tresnak.
4. Enklabe kulturalen ikusizko babes eta kontserbazioa sustatzea: Esku-hartzea bigarren kategorian bezala bideratu behar da.
5. Industria-ondarea berreskuratzea sustatzea. Katetoria horretan elementu bakarra sartzen da: Araiaiko burdinolak. Kasu honetan, jarduketak interpretazio zabalagoa izango du haranarekin eta zentral hidroelektrikoarekin duen harremanagatik, nahiz eta plangintza berezia tresna egokia izan.

Araba Erdialdeko eremu funtzionalean dagoen kultura-ondarearen zati handi batek ez du babes-figurarik. Arabako Mendialdean eta Arabako Haranetan egindako Oinarrizko Azterketei dagokienez, bi eskualdeetan Interes Kulturaleko 9 Ondasun daudela nabarmendu behar da: San Juan Ermita, Jasokundeko Andre Mariaren Eliza, Antoñanako Harresiak, Haitzeko Andre Mariaren Eliza, Arabako Mendialdean; eta Gatzagak, Orgazkoen Dorrea, Fontechako Kondestablearen Dorrea, Baronatarren Jauregi Dorrea eta Jasokundeko Andre Mariaren Eliza, Arabako Haranetan.

Horiez gain, beste ondare-elementu industrial batzuk, informazio- edo kultura-zentroak eta kultura-ibilbideak daude, lurraldeko kultura-ondarearen zati handiena osatzen dutenak.

Ondareari dagokionez aurkitutako arazoetako bat babesik ezari dagokio, eta hori aztarnategi batzuen espolioaren ondoren islatu da berriki. Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, bermatu egin behar da maiatzaren 9ko 6/2019 Legea betetzen dela. Lege horrek hiru babes-maila bereizten ditu ondasunaren kultura-balioen garrantziaren arabera: babes bereziko kultura-ondasunak, babes ertaineko kultura-ondasunak eta oinarrizko babes duten kultura-ondasunak (8. artikulua). Halaber, hemeretzi babes-kategoria bereizten dira: sei ondasun higiezinatarako (9. art.), bi ondasun higigarrietarako (10. art.) eta hamaika ondasun immaterialetarako (11. art.). Balizko arkeologia-guneak (65. artikulua) eta arkeologia- eta arkitektura-intereseko beste elementu batzuk ere ezartzen ditu. Kultura Ondarearen Inbentarioak Euskal Kultura Ondarearen Zentroan daude, eta zentro horretara bideratu behar da edozein kontsulta, ez baitaude jendearentzat eskuragarri elementu eta xehetasun guztiak.

Ondare immaterialak euskara barne hartzen du, tradizio eta ohitura herrikoiekin batera, hala nola Dulantziko jaiak edo Aguraingo edo Zalduondoko landa-inauteriak.

6.1.8. Beste ingurumen baldintzatzaile batzuk

Baliabide turistikoak

Eremu Funtzionalean egungo turismo-ereduaren arabera, % 92 nazio mailako turistak dira (guztien % 42, Kataluniakoak eta Andaluziakoak). Oporraldietan Euskadira etortzen dira, eta etenaldi laburra egiten dute Vitoria-Gasteizen, gaua pasatuta edo gabe, beraz, orokorrean, bisita hirigune historikora mugatzen dute. Hala, batetik, batez ere abuztuan etortzen dira eta, bestetik, jomugan gutxi gastatzen dute. Gainera, asko erabiltzen dute ibilgailu pribatua, eta ostatu turismo-etxebizitzatan gorantz doa. Faktore horietan guztietan oinarrituta, turismo-enplegua kalitate baxukoa da, diru gutxi uzteaz gain. Hiria nodo ekonomikoa denez, bileretako eta biltzarretako turismoa ere garatu da, baina Arabako Lurralde Historikoa batera hartuta, EAEko ostatu-plazen % 15era doi-doi iristen da, eta plaza ia guztiak Eremu Funtzionalean eta, batez ere, Vitoria-Gasteizen daude.

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspena -BEHIN BEHINEKO ONARPENA-

Guztira 4.674 ostatu-plaza ageri dira eta gutxi gorabehera alokairuko etxebizitzaren beste 1.500 erantsi behar zaizkie, azken urteotan asko hazi baita sektore hori. Gehienak Vitoria- Gasteizen kontzentratzen dira eta gentrifikazio-arazoak ekar ditzakete, nortasuna galtzarekin batera, nahiz eta beste kasu batzuetan degradazio-prozesuan dauden auzoak dinamizatzeko aukera bat izan. Bestalde, Eremu Funtzionalan bigarren bizilekuko etxebizitza gisa 26.680 plaza daude, eta aisialdiko jarduera islatzen dute, gehienetan Araba Erdialdeko egoiliarren beraien aisialdiari lotuta.

Bien bitartean, turismoa Eremu Funtzionalako gainerako tokietan natura, kultura eta/edo etnografiako ondarearekin zerikusia duten baliabideetara mugatzen da. Horiek guztiak Arabako egoiliarrek edo probintzia mugakideetako turistek bisitatzen dituzte, gehien bat.

Ura

Araba Erdialdeko LPPak ur-baliabideen kudeaketa jasangarriari heltzen dio, baliabide hidriko guztien egoera ekologiko ona mantentzeko edo berreskuratzeko helburuarekin. LPPak, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan oinarrituta, hiria berroneratzeko eta birmoldatzeko politikak hartu beharko ditu, ibaietan eta ibilguetan espazioak lehengoratzeko ahalbidetzeko. Gainera, lurpeko uren babesaren lurralde-dimentsioa garatzen da, prebentzio-politiken aplikazioan oinarrituta, LAGetan adierazten den bezala.

Araba Erdialdeko LPPak, uraren erabileran eta hondakin-isurketetan iraunkortasun-irizpideak sustatzeko, hornidura- eta saneamendu-sareak hobetzeko dagoen azpiegituraren gainean planifikatutako jarduketak barne hartzen ditu. Jarduketa horiek 2016-2026ko Arabako Lurralde Historikoko Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzaileari dagozkio.

- **Eremu Funtzionalako ur-horniduraren gaitasunaren ebaluazioa:**

URAK 2020ko azaroan argitaratutako EAeko Ur Eskariaren Azterlanaren Eguneraketa azterlanak 2027. eta 2039. urteetarako prognosi bat planteatzen du. Lehen horizontea hartu da, LPParen indarralditik gertuen dagoelako.

Taula honetan, Azterlanak 2027. urterako jarduera bakoitzerako aurreikusi duen kontsumoa eskualdeka nola agregatu den ikus daiteke.

Eskualdea	Eskaria (m ³ /urtean) 2027an
Arabako Lautada	1.831.646
Arabako Haranak	1.440.130
Arabako Mendiak	485.201
Gorbeialdea	1.359.078
Vitoria- Gasteiz	20.687.344
Ubide eta Otxandio	153.063
Arabako Erdialdea	25.956.462

8.TAULA. ARABA ERDIALDEKO ESKUALDEKO UR-KONTSUMOAREN AURREIKUSPENEA.

Informazio horretatik abiatuta, hornidura-sistemek 2027an bete behar duten ur-eskaria lortu da. Ondoren, eremuko egungo arroen hornidura-ahalmenari buruzko informazioa bildu da. Ebroko Arroaren Plan Hidrologikoaren zirriborroak planteatzen du XXI. mendearen amaieran murrizketa hori % 20koa izan daitekeela, baina ez dago kalkulurik LPPren indarraldirako. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2050eko Klima Aldaketaren Estrategiak Kantauri

Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko ekoizpena gutxitzeari buruzko informazioa jasotzen du, eta ez Ebroko Demarkazioan. Hala ere, kontuan hartuta bi demarkazioetako ibaiak elikatzen dituzten mendiguneak partekatuak direla, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren murrizketa-balioak hartu dira Planaren atariko azterketarako:

- Ekoizpen-ahalmena % 4 murriztea 2027an.
- Ekoizpen-ahalmena % 11 murriztea 2033an.

Ekoizpen-ahalmenaren murrizketa hori kontuan hartuta, arroen ahalmen hidrikoaren eta arro bakoitzaren hornidura jasotzen duten herrien ur-eskariaren arteko alderaketa erakusten da jarraian.

Arroa	Eskaria (Hm ³)	Biztanleria-balantzea (Hm ³)	Aurreikusitako murrizpena	Etorkizunerako ahalmen hidrikoa	Esperodun eskaria 2027an
Zadorra	130.5	25.6	4%	24.6	23.7
Bayas	2.0	0.5	4%	0.5	0.9
Inclares	0.4	0.1	4%	0.1	0.1
Omecillo	23.7	5.3	4%	5.1	0.2

9. TAULA. AHALMEN HIDRIKOAREN ETA 2027 URTERAKO ESKARIAREN ARTEKO KONPARAKETA

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, 2027ko agertokian Baiako arroak bakarrik izango lituzke edukiera-arazo potentzialak horniduran, eta zenbateko txikia Eremu Funtzionalaren bolumen globalarekin alderatuta. Nolanahi ere, arro horretan eraginkortasun hidrikoa hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke.

Energia

